ENERGIAREN PUNTUA

Energia-komunitateen sustapen bulegoa

Oficina de Transformación Comunitaria(OTC)

Sozietate kooperatiboaren formularen bidez eratutako energia komunitateetan toki erakundeek kontsumitzaile gisa duten parte hartzeari buruzko azterketa juridikoa

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO

IDAE Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana

TOKI ERAKUNDEEK SOZIETATE KOOPERATIBOAREN FORMULAREN BIDEZ ERATUTAKO ENERGIA KOMUNITATEETAN KONTSUMITZAILE GISA PARTE HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA JURIDIKOA

GIZABIDEA FUNDAZIOA

ARRASATEN, 2024KO MARTXOAREN 26AN.

AURKIBIDEA

Orrialdea

1. SARRERA **4**

2. AZTERKETA JURIDIKOA **6**

2.1.- ENERGIA KOMUNITATEEN IZAERA ETA GAUR EGUNGO EGOERA JURIDIKOA ESTATUKO ORDENAMENDUAN

2.2.- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEEN ETA HERRITARREN ENERGIA KOMUNITATEEN IRUDIAK GARATZEN DITUEN ERREGE DEKRETUAREN ZIRRIBORROAREN EDUKIA, ETA TXOSTEN HAU EMATEN DEN DATAN DAUKAN IZAPIDETZE EGOERA

2.3.- EUSKADIKO ENERGIA JASANGARRITASUNARI BURUZKO ESPARRU AUTONOMIKOA ETA TOKIKOA. TOKIKO ESKUMENEN ESPARRURIK EZ.

2.4.- TOKI ADMINISTRAZIOAK IZAERA JURIDIKO KOOPERATIBOA DUTEN ENERGIA KOMUNITATEETAN PARTE HARTZEA.

2.5.- SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO 9/2017 LEGEA AUTOKONTSUMO PARTEKATUAREN ARAUBIDEAN APLIKATZEARI BURUZ. ARAU HORRI LOTUTAKO KASUTZAT EZ HARTZEA.

2.6.- UDAL ONDASUNAK ETA HORIEN ERABILERA ERAKUNDE JURIDIKOEI LAGATZEA. ARRETA BEREZIA ENERGIA KOMUNITATEEI DAGOKIENEZ.

3. ONDORIOAK. 58

1. SARRERA.

Gizabidea Fundazioa (aurrerantzean, "GIZABIDEA" edo "Fundazioa") Gipuzkoako Debagoiena eskualdean garapen jasangarriko eredu bat bultzatzeko konpromisoa duen erakundea da. 2050. urterako eskualde adimentsu, inklusibo eta klimatikoki neutroa izateko helburua dauka, eta lankidetza sare ireki baten bidez lortu nahi du hori, non erakunde publikoek, eragile ekonomikoek, ezagutzaren eragileek eta gizarte zibilak batera jardungo duten.

Testuinguru horretan, Fundazioa DEBAGOIENA 2030 ekimenean (aurrerantzean "D2030") txertatuta dago, eta lankidetza hitzarmen bat sinatu du inguruko beste erakunde batzuekin –sektore publikokoak zein pribatukoak–; hain justu, XXI. mendeko erronka globalei erantzun propioa emango dien eraldaketa mugimendu bat bultzatzeko konpromisoa dutenekin.

Aldi berean, GIZABIDEA Eraldaketa Komunitarioko Bulego (aurrerantzean "EKB") bihurtu da, eta IDAEren dirulaguntza jaso du Tokiko Energia Komunitateak sortzen laguntzeko, eta Energia Komunitateak sustatzeko eta dinamizatzeko. Urriaren 25eko TED/1021/2022 Aginduak, 8.1. artikuluan, EKBren jarduerak arautzen ditu:

> a) Hedapena: energia komunitateak eratzeko eta funtzionatzeko prestakuntza ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak edo tailerrak ezartzea eta eskaintzea, herritarrentzat eta horietan interesa izan dezaketen gizarte sareko beste eragile batzuentzat.
>
> b) Lagun egitea: energia komunitateak dinamizatzeko eta ahalduntzeko laguntza teknikoa ematea; beste zerbitzu batzuen artean, ingurune jakin batzuetan parte hartze prozesuak garatzea, horiek eratzeko proiektuak gauzatzeko potentziala ebaluatzeko, herritarren eta gizarte sareko beste eragile interesdun batzuen parte hartzearekin eta, hala badagokio, partaide potentzialen informazio, eztabaida, deliberazio eta erabaki prozesuak ezartzea erraztuz.
>
> c) Aholkularitza: aholkularitza teknikoa, administratiboa edo juridikoa, energia komunitateak eratzeko eta funtzionatzeko proiektu zehatzak bultzatzeari lotutakoa.

Fundazioak uste du erronka horiei erakunde publikoen, eragile ekonomikoen, eragile sozialen eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren bidez bakarrik erantzun dakiekeela, diagnostiko eta agenda partekatu batean oinarritu, eta elkarrekin jardunda, dauzkagun arazo konplexuei irtenbidea bilatzeko ahaleginean. Horien artean ditugu autokontsumorako energia komunitateak eratzeko herritarrek egindako ekimenak.

Aldi berean, Fundazioak, EKB denez gero, bere ingurunean Tokiko Energia Komunitateak sortzeko planteatzen zaizkion ekimen guztiei erantzun nahi die, ekimen bakoitzerako beharrezkoak diren laguntza eta aholkularitza jasotzeko interesa duten pertsonei lagunduz.

Azaldutako erronkei erantzuteko testuinguru horretan, eta EKB gisa dituen zereginen barruan, D2030 ekimenetik energia komunitateak bultzatu dira hainbat udalerritan. Erakunde publiko horiek, hasiera batean, bazkide laguntzaile gisa agertzen dira, eta hainbat kopurutako ekarpen ekonomikoak egiten dituzte.

GIZABIDEAk, Debagoieneko EKB denez gero, parte hartze publikoa modu integralean biltzen duen azterketa egingo duen eta Zuzenbidean behar bezala oinarrituta dagoen irizpen bat emateko eskatu digu, eta, zehazki, energia partekatua kontsumitzeko eratutako erakundeetan Toki Administrazioak duen rolari buruzkoa, sustatzaile huts izatetik bazkide kontsumitzaile izatera igaroko baita. Testuinguru posible berri horretan hainbat zalantza sortzen dira. Administrazio Zuzenbidearen ikuspegitik, bi gai dituzte ardatz, nagusiki:

- Energia kooperatiba/komunitateen estatutuen azterketa egitea eta, sozietate kooperatiboen arloa arautzen duen araudiarekin bateratuta –Debagoieneko eskualdean hedatuen dagoen formula juridikoa baita–, Administrazio publikoak parte hartzeko duen aukera aztertzea; ez ekimenaren bultzatzaile eta bazkide gisa bakarrik, baita energia komunitateak sortutako energiaren kontsumitzaile gisa ere.

  Horrek zalantza batzuk sortzen ditu; laburbilduta: Sektore Publikoko Kontratuen Legearekin izan ditzakeen talkak, energia sortzeko azpiegiturak ezartzeko ondasunen lagapenen araubidea eta erakunde publikoak energia komunitate batek dakarren ekimen edo jarduera ekonomikoan parte hartzeko prozedura formula.

- Administrazioa titular duten eta energia sortzeko azpiegiturak hartzeko aproposak izan daitezkeen ondasunen ustiapen erregimena. Administrazioak ondasunak (jabari publikokoak edo ondarezkoak) lagatzeko dituen formulen azterketa, eta Administrazioaren partaidetzak kooperatibari egin diezaiokeen ekarpena, higiezinaren errentamenduaren edo emakidaren balioarekin konpentsatuta.

Jarraian garatuko dugun analisiaren helburua da planteatutako gaiei erantzun juridikoa ematea. Erantzun horiek, gero, formula juridikoari eta edozein erkidegoren energia ekoizpen eta kontsumoari dagokienez asimilagarriak diren energia komunitateen ereduetara eraman ahal izango dira.

2. AZTERKETA JURIDIKOA.

2.1.- ENERGIA KOMUNITATEEN IZAERA ETA GAUR EGUNGO EGOERA JURIDIKOA ESTATUKO ORDENAMENDUAN.

2.1.1.- Energia Komunitateen erregulazioa Europar Batasuneko arauditik dator, eta energiaren sektorea liberalizatzeko asmoz, eta baita ingurumen jasangarritasuneko irizpideengatik ere, erakunde horiek indartzea planteatzen du; bi eredu mota bereizten ditu:

- Herritarren Energia Komunitateak (2019/944 EB Zuzentaraua, elektrizitatearen barne merkaturako arau komunei buruzkoa, 16. art.).

- Energia Berriztagarrien Komunitateak (2018/2001 EB Zuzentaraua, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzea, 22. art.).

Elektrizitatearen barne merkaturako arau komunei buruzko 2019/944 EB Zuzentarauaren 16. artikuluak herritarren energia komunitateen esparrua ezartzen du, era honetan (artikuluaren lehen puntura mugatuko gara):

> "*1. Estatu kideek herritarren energia komunitateentzako esparru juridiko mesedegarria eskainiko dute, honako hauek bermatzeko:*
>
> *a) herritarren energia komunitate ireki eta borondatezko batean* ***parte hartzea;***
>
> *b) herritarren energia komunitate bateko* ***bazkideek edo kideek komunitatea uzteko eskubidea*** *izango dute; kasu horietan 12. artikulua aplikatuko da;*
>
> *c) herritarren energia komunitate bateko* ***bazkideek edo kideek etxeko bezero edo bezero aktibo gisa dituzten eskubideak eta betebeharrak ez galtzea****;*
>
> *d)* ***dagokion banaketa sarearen kudeatzaileak*** *herritarren energia komunitateekin* ***lankidetzan*** *jardungo du, agintaritza arautzaileak ebaluatutako konpentsazio justu baten truke, horien arteko elektrizitate transferentziak errazteko;*

e) herritarren energia komunitateek prozedura eta tasa jakin batzuk izaten dituzte, tartean, lizentziak erregistratzea eta ematea, zuzenak, proportzionalak eta gardenak, bai eta sarera sartzeko tarifa gardenak eta ez-diskriminatzaileak ere, 2019/943 (EB) Erregelamenduaren 18. artikuluaren arabera kostuak islatzen dituztenak, eta sistemaren kostuen banaketa orokorrean modu egokian eta orekatuan lagunduko dutela bermatzen dutenak.

(…)"

Bestalde, 2018/2001 EB Zuzentarauaren 22. artikuluak Energia Berriztagarrien Komunitateak aipatzen ditu –pertsona fisiko edo juridikoek osatutako erakundeak, hurbilean energia berriztagarrien proiektuak garatzeko elkartzen direnak, onura ekonomikoak, ingurumenekoak edo sozialak lortzeko helburuz–, eta herritarrek honako eskubide hauek dituztela ezartzen du:

a) energia berriztagarriak ekoiztea, kontsumitzea, biltegiratzea eta saltzea, batez ere elektrizitate berriztagarria erosteko kontratuen bidez;

b) energia berriztagarrien komunitatearen barruan, energia berriztagarrien komunitate horren jabetzako ekoizpen unitateek ekoizten duten energia berriztagarria partekatzea, artikulu honetan ezarritako beste baldintzak betez eta kontsumitzaile diren aldetik energia berriztagarrien komunitateko kideen eskubide eta betebeharrei eutsiz;

c) energiaren merkatu egoki guztietara sartzea, bai zuzenean bai agregazio bidez, diskriminaziorik gabe.

Beraz, Herritarren Energia Komunitateei dagokienez, 2019/944 EB Zuzentarauaren 16. artikuluaren lehen atala da nabarmendu beharrekoa, zeinak ezartzen duen estatu kideek herritarren energia komunitateentzat esparru juridiko mesedegarri bat sortzeko betebeharra dutela, oso ezaugarri zehatzekin, eta garrantzitsua da Zuzentarauaren hitzaurreak berak, bere 44. atalean, hau ezartzen duela: *"**Herritarren energia komunitateetako kide izateko aukerak zabalik egon behar du erakunde kategoria guztientzat.** Hala ere, herritarren energia komunitate baten barruan erabakitzeko eskumenak eskala handiko jarduera ekonomiko batean parte hartzen ez duten kide edo bazkideentzat gorde behar dira, hau da, **energiaren sektorea jarduera ekonomikoaren eremu nagusitzat ez daukaten horientzat. Herritarren energia komunitateak herritarren lankidetzarako kategoriatzat edo «tokiko eragileen» kategoriatzat hartzen dira, eta Batasuneko Zuzenbideak aitortu eta babestu behar du.***

Herritarren energia komunitateei buruzko arauek ez dute baztertzen herritarren beste ekimen batzuk egitea, hala nola Zuzenbide pribatuko akordioetatik eratorritakoak. Beraz, ***estatu kideek aukera izan behar dute herritarren energia komunitateei edozein erakunde mota esleitzeko, hala nola elkartea, kooperatiba, sozietatea, irabazi-asmorik gabeko erakundea edo ETEa, betiere erakunde horrek eskubideak balia baditzake eta bere izenean betebeharrak baditu”****.*

Autokontsumo elektrikoa Europar Batasunean lehen aldiz 2018/2001 Zuzentarauko 21. artikuluan arautu zen, eta estatu kideek kontsumitzaileek autokontsumitzaile bihurtzeko eskubidea dutela bermatzeko duten betebeharra ezarri zen; eskubide hauek aitortu zaizkie:

a) Energia berriztagarria sortzea, norbere kontsumorakoa barne, eta elektrizitate berriztagarria ekoizteko soberakina biltegiratzea eta saltzea, bereziki elektrizitate berriztagarria erosteko kontratuen bidez edo elektrizitate hornitzaileekin eta parekoekin akordio komertzialak eginez, honako hauetara lotuta egon gabe:

> i) Saretik kontsumitzen duten edo sarera isurtzen duten elektrizitateari dagokionez, prozedura eta kargu diskriminatzaile edo neurriz kanpokoei eta kostuak islatzen ez dituzten sareko tarifei;
>
> ii) Autosortutako eta iturri berriztagarrietatik datorren eta bere lokaletan jarraitzen duen elektrizitateari dagokionez, prozedura diskriminatzaile edo neurriz kanpokoei eta edozein kargu edo tasari;

b) Elektrizitatea biltegiratzeko sistemak instalatzea eta erabiltzea autokontsumorako elektrizitate berriztagarria sortzen duten instalazioekin konbinatuta, inolako karga bikoitzik izan gabe, bere lokalen barruan geratzen den elektrizitate biltegiratuaren sarearen tarifak barne;

c) Azken kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak eta betebeharrak zaintzea;

d) Autosortutako eta sarera isuritako elektrizitate berriztagarriagatik ordainsari bat jasotzea, hala badagokio, laguntza sistemen bidez, bere merkatu balioa islatuko duena eta epe luzera sarerako, ingurumenerako eta gizarterako duen balioa kontuan hartu ahal izango duena.

Energia komunitateei buruzko Europako araudiaren arabera, Batasuneko estatu kideek edozein forma juridiko aukera dezakete komunitate horientzat, betiere EBk ezarritako printzipioak errespetatzen dituzten formula juridikoak badira. Beraz, Espainiako estatuan, sozietate kooperatiboez gain, elkarte, fundazio, sozietate zibil, partzuergo, ondasun komunitate, zuzenbide publikoko korporazio, parke teknologiko, auzo komunitate, interes ekonomikoko talde eta abarrek ere izan dezakete lekua.

Zuzentarau horrek energiari buruzko zuzentarauen lekualdatze osoa egiteko epe bat ezartzen badu ere –2021eko ekainaren 30era arte–, gaur egun ez dago horretarako barne araurik, eta, beraz, testuinguru eta segurtasun juridiko falta dago, baina horrek ez du eragozten horrelako ekimenak garatzea.

Azpimarragarria da Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak energia komunitateen definizio bat jasotzen duela; hauxe: "*Energia arloan erabateko borondatez eta modu irekian parte hartzen duten erakunde juridikoak, non kontrol eraginkorra pertsona fisikoek, ETEek edo tokiko agintariek izan dezaketen*". Ez du zehazten tokiko agintari horiek komunitateetan duten zeregina; zuzenean komunitate horietako kide izateko aukera ematen zaiela, besterik ez.

2.1.2.- Espainiako Estatuak, Europar Batasuneko estatu kide gisa, araudi hori guztia bere ordenamendu juridikora lekualdatu behar du, baina oraingoz modu mugatuan edo partzialean egin du, Energia Berriztagarrien Komunitateak (aurrerantzean, EBK) Estatuko zuzenbidean sartuz. Komunitate horiek Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean (aurrerantzean, SEL) daude txertatuta, 23/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (ekainaren 23koa, ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituena), zeinak trantsizio energetikoan oso garrantzitsuak izan nahi duten negozio eredu berriak sustatzeko neurri batzuk hartu baitzituen, honako hauek gehituta: biltegiratzeari buruzko xedapenak, agregatu independenteak, energia berriztagarrien komunitateak, hibridazioa, ahalmen handiko birkarga azpiegiturak (>250kW), I+G+B proiektuen baimen sinplifikatua, saiakuntza banku arautzaileak, sare instalazio mugikorren baimen sinplifikatua eta emandako sarbide ahalmenaren erabileraren optimizazioa.

23/2020 Errege Lege Dekretuaren hitzaurreak, energia komunitateei dagokienez, honako hau adierazi zuen: "*Europako zuzentarauetatik datozen irudi berriak hizpide hartuta, energia berriztagarrien komunitateen definizioa txertatzen da, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauan komunitate horiek aurreikusita dauden bezala. Irudi horrek, zuzentarau horrekin bat etorriz, herritarrek eta tokiko agintariek energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzea du helburu, eta, horri esker, energia horiek onarpen handiagoa izango dute tokian bertan, eta herritarrek trantsizio energetikoan parte hartze handiagoa izango dute*".

Lekualdatze haren ondoren, Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legea aldatuta –funtsean Energia Berriztagarrien Komunitateak energia horniduraren antolamenduaren eraginpeko subjektuen artean sartzeko 6. artikuluari eragin ziona, bai eta autokontsumoa arautzeko 9. artikuluari ere–, Energia Berriztagarrien Komunitateak subjektu berri gisa txertatu ziren Sektore Elektrikoari buruzko Legean araututako hornidura elektrikorako jardueraren barruan, eta ordainsari araubide espezifiko bat lortzeko norgehiagoka prozeduretan parte hartzeko aukera aitortu zitzaien.

Baina Energia Berriztagarrien Komunitateetara mugatzean, Herritarren Energia Komunitateak aukera horretatik kanpo geratzen direla dirudi.

Era berean, bi irudiak hainbat dokumentu estrategikotan jasotzen dira, eta horiek garrantzitsuak dira energia elektrikoaren hornidura osatzen duten jardueren barruan eragile berri gisa energia komunitateak indartzeko, baina oraingoz ez dute beharrezko indar arauemailerik.

Estatu mailan dagoen erregulazioa benetan eskasa da, eta ez die bermez erantzuten Europako zuzentarauetako aginduei, Europako araudian jasotako eskubide, ahalmen eta betebeharrak bermatzen dituen aldeko esparru juridikoa hornitzeari dagokionez, eta horrek ekimenen garapena eta ezarpena blokeatzen du, eta, horrekin batera, baita iturri berriztagarrietatik eta merkatu deskarbonizatuetatik eratorritako elektrizitatearen ekoizpen deszentralizatuaren helburuak lortzea ere.

Espainiako Estatuaren ekimen eskasak, Europako esparrua inplementatzen duen eta are garatzen duen energia komunitateen araudi erregulatzaile bat garatzeko orduan, Autonomia Erkidegoen ekimena ere baldintzatzen du, oro har, energiaren arloko eskumen erregulatzaileen sortaren barruan, eta bereziki, irudi horiei dagokienez. Ildo horretan, energia komunitateen eraketa bultzatuko duen arau esparru autonomiko propioa garatzeak, Estatuko administrazioak garatzen ez duenez, muga argi batzuk ditu bere aurka, Espainiako Konstituzioak Estatuari esklusiboki erreserbatzen dizkion eskumenetatik eratorriak; batez ere 149.1 artikuluan, 22. paragrafoan: Baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen legegintza, antolaketa eta emakida, urak autonomia erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen direnean, eta instalazio elektrikoak baimentzea, haien aprobetxamenduak beste erkidego bati eragiten dionean edo energia garraioa haren lurralde eremutik ateratzen denean.

Muga horiek igartzen dira alderdi giltzarriak daudelako, eta horiek honako hauek beharko lituzketelako: estatu mailako aurretiko erregulazio espezifiko bat edo indarrean dagoen Estatuko araudia aldatzea.

2.1.3.- Txosten honi dagokionez, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bitartez energiaren arloko eta ekonomia suspertzeko beste esparru batzuetako neurriak onartzen diren eta horretarako Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen zenbait artikulu aldatzen diren, honela definitzen dira Energia Berriztagarrien Komunitateak 6.1 artikuluaren j) atalean: *"Parte hartze ireki eta boluntarioan oinarritutako erakunde juridikoak, autonomoak eta erakunde juridiko horien jabetzakoak diren eta haiek garatu dituzten energia berriztagarrien proiektuen inguruan kokatuta dauden bazkideek edo kideek benetan kontrolatuak,*

baldin eta bazkideak edo kideak pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak badira, udalerriak barne, eta helburu nagusia bazkideei edo kideei edo jarduten duten tokiko eremuei onura ekonomiko, sozial edo ingurumen arlokoak ematea bada, finantza irabaziak eman beharrean".

Eta ildo beretik dator Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 3. artikuluan jasotako energia komunitateen definizioa.

Beraz, komunitate horiek edozein energia bektoreren instalazio eta zerbitzuetan oinarritu daitezke, baldin eta berriztagarria bada.

Bestalde, 24/2013 Legearen 9. artikuluak autokontsumoaren kontzeptua arautzen du, eta zehazten du autokontsumoaz ari garenean, ulertzen dela kontsumitzaile baten edo batzuen kontsumoaz ari garela, hau da, kontsumorako instalazioetatik hurbil eta horiei lotuta dauden produkzio instalazioetatik datorren energia elektrikoaren kontsumoaz, non modalitate hauek bereizten diren:

a) Soberakinik gabeko autokontsumorako hornidura; instalazioak gailu fisikoak dauzka instalatuta, garraio edo banaketa sareari soberako energia injektatzea eragozten dutenak. Kasu horretan, subjektu mota bakarra dago, alegia, subjektu kontsumitzailea, 24/2013 Legearen 6. artikuluan honela definitzen dena: *"Energia beren kontsumorako eta ibilgailuak energiaz kargatzeko zerbitzuak emateko eskuratzen duten pertsona fisiko edo juridikoak".*

b) Hornidura autokontsumoduna eta soberakinduna; hau da, autokontsumorako energia hornitzeaz gain, garraio sareetan soberako energia injektatzen duten sorkuntza instalazioak. Kasu horretan, subjektu kontsumitzaileak eta ekoizleak dira; azken horiek honela definitzen dira: *"Energia elektrikoa sortzeko eta produkzio instalazioak eraikitzeko, bertan jarduteko eta mantentzeko funtzioa duten pertsona fisikoak edo juridikoak".*

Legearen aurreikuspen hori energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan garatu da. Dekretu horren 4. artikuluaren 3. atalean autokontsumo modalitateen sailkapena egiten da, "autokontsumo partekatua" barne. Autokontsumo partekatua honela definitzen da: *"Kontsumorako instalazioetatik hurbil eta horiei lotuta dauden sorkuntza instalazioei lotutako kontsumitzaile bat baino gehiagoren kontsumoa"*. Hala, Errege Dekretuaren 4. artikuluan –Legearen 9. artikulua garatzen duena– zehaztutako edozein autokontsumo modalitatetakoak izan daitezke, soberakinekin edo soberakinik gabe, barne sareko instalazio hurbilen artean egiten denean.

Autokontsumo partekatuaren kasuan, sorkuntza instalazio berarekin elkartuta dauden kontsumitzaile parte hartzaile guztiek autokontsumo modalitate berekoak izan beharko dute, eta banaka jakinarazi beharko diote enpresa banatzaileari, zuzenean edo enpresa merkaturatzailearen bidez, banaketa irizpideak jasoko dituen akordio bat, parte hartzaile guztiek sinatua.

Hornidura soberakindun eta autokontsumodun modalitateei lotuta egon eta 100 kW-eko potentzia gainditzen ez duten produkzio instalazioak salbuetsita egongo dira energia elektrikoa ekoizteko instalazioen administrazio erregistroan inskribatzeko betebeharretik.

Jatorri berriztagarriko, kosorkuntzako eta hondakinetako energia autokontsumitua salbuetsita dago orotariko kargu eta bidesarietatik, eta hurbileko instalazioetan banaketa sarearen bidez autokontsumorako energia transferitzen bada, banaketa sare hori erabiltzeagatik aplikatu beharreko kopuruak ezarri ahal izango dira.

Autokontsumoarekin lotutako sorkuntza instalazioetako soberakinek gainerako produkzio instalazioek ekoitzitako energiaren tratamendu bera izango dute; era berean, autokontsumitzaileek garraio edo banaketa sarearen bidez eskuratzen dituzten energia defizitek gainerako kontsumitzaileenek duten tratamendu bera izango dute.

Autokontsumoari dagokionez garapen handiena duen araua urriaren 9ko 900/2015 Errege Dekretua da, autokontsumoa duen energia elektrikoa hornitzeko eta autokontsumoarekin ekoizteko modalitateen baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena, txosten honen ondorioetarako interesgarriak diren definizioekin, hala nola:

- Kontsumitzaile elkartua: ekoizle batekin garraio edo banaketa sarearekin konexio azpiegiturak partekatzen dituen hornidura puntu edo instalazio bateko kontsumitzailea, edo ekoizleari linea zuzen baten bidez lotuta dagoena, edo barne sarean produkzio instalazio bat –produkzio instalazioen administrazio erregistroan inskribatua– konektatuta daukana, produkzio instalazio horretatik datorren energia kontsumitu ala ez.

- Linea zuzena: produkzio instalazio bat eta kontsumitzaile bat zuzenean lotzeko linea, araudian ezarritako baldintzak betetzen dituena.

Barne sarea: banaketa sarekoa ez den instalazio hartzaile bati zerbitzu emateko behar diren eroale, aparatu eta ekipoek osatutako instalazio elektrikoa. Nolanahi ere,

energia elektrikoa ekoizteko instalazioen administrazio erregistroan inskribatutako produkzio instalazioak kontsumitzailearen sarearen barnean konektatuta daudela ulertuko da kontsumitzaileak garraio edo banaketa sarearekin konektatzeko azpiegiturak partekatzen dituenean.

- Kontsumitutako orduko energia: produkzio instalazio batera elkartutako kontsumitzaileak kontsumitzen duen orduko energia garbia.

- Sortutako orduko energia garbia: sortutako energia gordina ken ordu tarte batean zerbitzu osagarriek kontsumitutakoa.

Nolanahi ere, urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretua, trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileen babeserako premiazko neurriei buruzkoa, autokontsumoaren iraultzarako lehen urratsa izan zen, eta hori apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren bidez zehaztu da (energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena) eta ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (energiaren arloko eta ekonomia suspertzeko beste esparru batzuetako neurriak onartzen dituena).

Aipatutako araudia:

a) Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean aurreikusitako elektrizitatearen autokontsumorako modalitateak bi tipologiatan sinplifikatu dira, sarean soberakinik isurtzen den ala ez kontuan hartuta, kontratatutako potentzia edozein dela ere. Autokontsumoari buruzko Errege Dekretuak bi azpikategoria ezartzen ditu soberakinak dituen modalitaterako: konpentsazioari atxikitako modalitate soberakinduna eta konpentsazioari atxiki gabeko modalitate soberakinduna. Gainera, modalitate guztietarako, biltegiratze sistemak instalatzeko aukera sartzen da.

b) Autokontsumoari buruzko Errege Dekretuak berariaz sailkatzen du autokontsumoa banakakoan eta, lehen aldiz, kolektiboan. Autokontsumo partekatua, Errege Dekretuaren arabera, energia elektrikoa sortzen du(t)en instalazio batek edo batzuek eta horiekin lotzen diren zenbait kontsumitzailek osatuko dute. Autokontsumo hori lehen definitutako edozein modalitatetakoa izan daiteke, barne sareko hurbileko instalazioen artean egiten denean, edo edozein autokontsumo modalitate soberakindun, autokontsumoa hurbileko instalazioen artean egiten denean sarearen bidez.

Nabarmen sinplifikatu dira autokontsumoaren administrazio erregistroei buruzko administrazio izapideak, bai eta autokontsumoarekin lotutako produkzio instalazioak

sarera sartzeko eta konektatzeko administrazio baldintzak eta baldintza teknikoak ere.

c) 100 kW-rainoko instalazioetarako autokontsumo soberakindunari atxikitako autokontsumitzaileen defiziten eta superabitaren arteko konpentsazio mekanismo sinplifikatuak izateko aukera aurreikusten da. Halatan, autokontsumitzaile txikiek produkzio elektrikoaren soberakinak isuri ditzakete, eta trukean konpentsazio bat jaso. Soberako energiari dagokionez, Autokontsumorako Errege Dekretuak bi ordainsari araubide ezartzen ditu (13. eta 14. art.): energia sarera saltzea (nahitaezkoa da soberakinak konpentsazioari atxiki gabe dauzkaten autokontsumitzaileentzat) edo soberakinak modu sinplifikatuan konpentsatzea (konpentsazioari atxikitako soberakinak dauzkaten autokontsumitzaileentzat). Azken kasu horretan, soberakinak hilero konpentsatuko dira, soberako orduko energia baloratuz, muga honekin: konpentsatu beharreko zenbatekoak ezingo du kontsumitutako orduko energiaren hileko balorazioa gainditu.

d) Europako matrizearen irudi berriak sartu dira, hala nola energia komunitateak eta agregatzaile independenteak.

e) Azkenik, "eguzkiari ezarritako zerga" delakoa kendu zen, hau da, energiaren autokontsumoa babesteko bidesariak.

Lege esparru berri hori onuragarriagoa da autokontsumo fotovoltaikoa garatzeko, eta, gainera, udalei lege oinarriak ematen dizkie beren udalerrietan autokontsumoa modu erabakigarriagoan bultza dezaten; hala ere, egia da oraindik ere 2018/2001 eta 2019/944 (EB) zuzentarauen lekualdatzea berariaz egingo duen arau baten behin betiko bultzada falta dela.

2.2.- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEEN ETA HERRITARREN ENERGIA KOMUNITATEEN IRUDIAK GARATZEN DITUEN ERREGE DEKRETUAREN ZIRRIBORROAREN EDUKIA, ETA TXOSTEN HAU EMATEN DEN DATAN DAUKAN IZAPIDETZE EGOERA.

Aurreko atalean adierazi den bezala, gaur egun estatuko ordenamendua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauan (iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/944 (EB) Zuzentarauan (elektrizitatearen barne merkaturako arau komunei buruzkoa eta 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duena) xedatutakoaren lekualdatzearen zain dago.

Gaur egun ekimen bat izapidetzen ari da, eta ekimen hori energia berriztagarrien komunitateen eta herritarren energia komunitateen irudiak garatzen dituen Errege Dekretuaren Proiektuaren zirriborro batean zehazten da. 2023ko apirilean egin zen, eta alegazio fasea 2023ko maiatzaren 17an amaitu zen. Haren helburua 2018/2001 (EB) Zuzentarauaren eta 2019/944 (EB) Zuzentarauaren lekualdatzea egin eta garatzea da. Garrantzitsua da kontuan hartzea Errege Dekretuaren proiektuaren onarpenak ez duela datarik, eta, beraz, ezin dugu aurreikusi noiz jarriko den indarrean, ezta zer testu jasoko duen ere, EBko estatu kideek eskumena baitute zuzentarauen esparrua garatzeko.

Jendaurrean jarritako dokumentuak honako irudi hauek arautzen ditu:

a) Energia berriztagarrien komunitateak, zeinak iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 (EB) Zuzentarauan arautzen diren.

Errege Dekretuaren proiektuan honela definitzen dira: *"Parte hartze ireki eta borondatezkoan oinarritutako erakunde juridikoa, autonomoa eta erakunde juridiko horren jabetzakoak diren eta erakunde horrek garatu dituen energia berriztagarrien proiektuen inguruan dauden bazkideek edo kideek benetan kontrolatua, baldin eta bazkideak edo kideak pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak badira –udalerriak barne– eta haien helburu nagusia bazkideei edo kideei edo jarduten duten tokiko eremuei ingurumen, ekonomia edo gizarte arloko onurak ematea bada, finantza irabazien ordez".*

b) Herritarren energia komunitateak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/944 (EB) Zuzentarauan aurreikusiak, kontuan harturik zuzentarau hori elektrizitatearen barne merkaturako arau komunei buruzkoa dela eta 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duela.

Honela definitzen dira: *"Borondatezko parte hartze irekian oinarritutako erakunde juridiko bat, zeinaren benetako kontrola pertsona fisikoak, tokiko agintariak –udalerriak barne– edo enpresa txikiak diren bazkideek edo kideek gauzatzen duten, helburu nagusia bertako kideei, bazkideei edo jarduera garatzen duen herriari ingurumen, ekonomia edo gizarte arloko onurak eskaintzea denean, errentagarritasun finantzarioa sortzea baino gehiago"*.

Nolanahi ere, Errege Dekretuaren Proiektu honek, behin betiko onespenik ez duela eta geroko txosten eta alegazioetan oinarrituta aldaketak egingo direla uste izatekoa dela-eta kontuan hartu beharreko kautela guztiekin,

toki erakundeek energia komunitateetan parte hartzea sustatzeko garrantzitsuak diren zenbait gai jasotzen ditu, eta horietatik honako hauek nabarmenduko ditugu:

A) Energia berriztagarrien komunitateek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gutxienez bost bazkidek edo kidek osatuko dute.

b) Parte hartze irekian oinarrituta dagoela ulertuko da, baldin eta bertako kide izan badaiteke eskatzen diren baldintzak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko publiko, pribatu edo publiko-pribatu, eta ezin izango dira muga edo baldintza justifikatu gabeak edo diskriminatzaileak ezarri.

c) Energia berriztagarrien komunitate bateko kide izatea librea eta borondatezkoa izango da. Edozein kidek edo bazkidek edonoiz utzi ahal izango du komunitate hori, alta eta baja arauen arabera eta bere estatutuetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzetan.

d) Kide edo bazkideekiko autonomiari eutsiko dio eta horiek kontrolatuko dute. Baldintza hori betetzen ez dela ulertuko da, honako kasu hauetan:

i) Kide edo bazkide bakar batek botoen %51 baino gehiago biltzen baditu, edo estatutuetan edo komunitatearen barne funtzionamendua arautzen duen dokumentuan hartu beharreko erabakiak hartzeari aplikatu beharreko erregimenaren konfigurazioak bazkide jakin batzuei gainerakoekiko domeinu posizio bat esleitzea badakar.

ii) Kide edo bazkide bakar batek administrazio organoko kide gehienak izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmena badauka.

e) Energia berriztagarrien komunitate bateko kideak edo bazkideak komunitate horretako energia proiektu baten inguruan daudela ulertuko da:

i. proiektua 5.000 biztanlera arteko udalerrietan gauzatzen denean, ondasun higiezinen jabeak diren pertsonak, ohiko bizilekua dutenak edo proiektua garatzen den udalerrian hornidura puntu baten titular direnak, bai eta proiektua gauzatzen den udalerriaren zuzeneko mugakide diren udalerrietakoak ere, betiere banaka hartuta 50.000 biztanle baino gehiago ez badituzte eta udalerri guztien biztanle kopurua –proiektua gauzatzen den udalerrikoak barne– 50.000 biztanle baino gehiagokoa ez bada.

ii. proiektua 5.001 eta 50.000 biztanle arteko udalerrietan gauzatzen denean, ondasun higiezinen jabeak diren pertsonak, ohiko bizilekua dutenak, edo proiektua gauzatzen den udalerrian hornidura puntu baten titular direnak.

iii. proiektuak 50.000 biztanletik gorako udalerrietan gauzatzen direnean, ondasun higiezinen jabeak diren pertsonak, ohiko bizilekua dutenak edo energia berriztagarrien komunitateak amaitutako lehen proiektuaren inguruan bost kilometroko erradioan hornidura puntu baten titular direnak.

f) Energia berriztagarrien komunitateek bazkideei edo kideei eta lan egiten duten tokiko guneei ingurumen, ekonomia eta gizarte onurak ematen dizkietela ulertuko da, batez ere –baina ez soilik– lortu ditzaketen onurak bazkideen edo kideen energia kostuak murriztera, helburu sozialarekin lotutako jarduerak garatzera, ingurunearen ingurumen hobekuntza dakarten inbertsioetara edo jarduera garatzen duen herriaren edo herrien garapen sozialera bideratzen dituztenean.

B) Herritarren energia komunitateek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gutxienez bost bazkidek edo kidek osatuko dute.

b) Herritarren energia komunitate bat parte hartze irekian oinarrituta dagoela ulertuko da, baldin eta bertako kide izan badaiteke eskatzen diren baldintzak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko publiko, pribatu edo publiko-pribatu, eta ezin izango dira muga edo baldintza justifikatu gabeak edo diskriminatzaileak ezarri.

c) Herritarren energia komunitate bateko kide izatea librea eta borondatezkoa izango da.

Edozein kidek edo bazkidek edonoiz utzi ahal izango du komunitate hori, alta eta baja arauen arabera eta bere estatutuetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzetan.

d) Herritarren energia komunitateak bere autonomia gordeko du kideekiko edo bazkideekiko. Baldintza hori betetzen ez dela ulertuko da, honako kasu hauetan:

i) Kide edo bazkide bakar batek botoen %51 baino gehiago biltzen baditu, edo estatutuetan edo komunitatearen barne funtzionamendua arautzen duen dokumentuan hartu beharreko erabakiak hartzeari aplikatu beharreko erregimenaren konfigurazioak bazkide jakin batzuei gainerakoekiko domeinu posizio bat esleitzea badakar.

ii) Kide edo bazkide bakar batek administrazio organoko kide gehienak izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmena badauka.

e) Herritarren energia komunitatea pertsona fisikoek, enpresa txikiek edo tokiko agintariek kontrolatuko dute; besteak beste, udalerriek. Baldintza hori betetzen ez dela ulertuko da, honako kasu hauetan:

i) Pertsona fisikoak, enpresa txikiak edo tokiko agintariak ez diren bazkideek edo kideek –tartean, udalerriak– botoen %51 baino gehiago biltzen badituzte, edo estatutuetan edo barne funtzionamendua arautzen duen dokumentuan hartu beharreko erabakiak hartzeari aplikatu beharreko erregimenaren konfigurazioak pertsona fisikoak, enpresa txikiak edo tokiko agintariak ez diren bazkideei edo kideei –udalerriak barne– gainerakoekiko domeinu posizio bat esleitzea badakar.

ii) Pertsona fisikoak, enpresa txikiak edo tokiko agintariak ez diren bazkideak edo kideak –udalerriak barne–, administrazio organoko kide gehienak izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmena dutenak.

f) Herritarren energia komunitateak bere bazkide edo kideei eta jarduten duten tokiko guneei ingurumen, ekonomia eta gizarte onurak ematen dizkiela ulertuko da, batez ere lortu ditzaketen onurak bazkideen edo kideen energia kostuak murriztera, helburu sozialarekin lotutako jarduerak garatzera, ingurunearen ingurumen hobekuntza dakarten inbertsioetara edo jarduera garatzen duen herriaren edo herrien garapen sozialera bideratzen dituztenean.

Berresten dugu, oraingoz, erregelamenduaren zirriborro huts baten aurrean gaudela, baina formulei, partaidetzei, botereen banaketari eta bestelakoei buruzko gai garrantzitsuak aipatzen ditu.

2.3.- EUSKADIKO ENERGIA JASANGARRITASUNARI BURUZKO ESPARRU AUTONOMIKOA ETA TOKIKOA. TOKIKO ESKUMENEN ESPARRURIK EZ.

2.3.1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak (2019ko otsailaren 28ko EHAAn, 42. zk.), euskal administrazio publikoei aplikatzekoa denak –tartean, Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeak, Erakundeei buruzko 2/2016 Legean definitu bezala– hauek ezartzen ditu helburutzat: (i) energiaren erabileran eraginkortasuna bultzatzea eta aurreztea sustatzea, arlo horretako Europar Batasunaren arau eta jardueren esparruan, (ii) energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna murrizteko, (iii) euskal administrazio publikoen energia faktura murriztea, (iv) beste administrazio batzuekin eta partikularrekin akordioak bultzatzea, energia

jasangarritasun eta subiranotasun handiagoa lortzeko, (v) energiaren kudeaketa lokalagoa eta komunitarioagoa bultzatzea, (vi) energia aurreztea, berotegi efektuko gasen (BEG) emisioak murriztea eta energia berriztagarriak sustatzea helburu duten zerbitzu eta produktuen erosketa eta kontratazio publikoa sustatzea edo (vii) BEGen emisioak murriztearen eta energia berriztagarriak sortzearen edo erabiltzearen aldeko jarduerak bultzatuko dituzten politikak eta araudiak sustatzea.

Araudi horrek sustapen neurriak ezartzera derrigortzen ditu administrazio publikoak. Esate baterako, legea indarrean sartzen denetik aurrera, euskal administrazio publikoen energia elektrikoa erosteko lizitazioetan, eskuratutako energiaren %100 jatorri berriztagarrikoa izatea eskatuko da, eta enpresa txiki eta ertainek zein kooperatibek lizitazio horietarako lehia bermatuta izan beharko dute; eskatuko da, halaber, plegu horien balorazio ekonomikoan, enpresa merkaturatzaileen onura soziala eta energia sorkuntzaren hurbiltasuna kontuan hartzea.

Lizitazioen arloko aurreikuspen hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aurreikuspenarekin bateratu daiteke. Lege horrek bere 3. artikuluan jasotzen du enpresa txiki eta ertainei, eta baita ekonomia sozialeko enpresei ere, kontratazio publikorako sarbidea errazteko betebeharra dagoela, eta 202. artikuluan, kontratu soziala, etikoa, ingurumenekoa edo beste era batekoa gauzatzeko baldintza bereziak jasotzen ditu. Zehazki, bigarren atalak honako hau ezartzen du:

> *"2. Exekuzio baldintza horiek, bereziki, berrikuntzarekin lotutako gogoeta ekonomikoei buruzkoak izan daitezke, ingurumen motakoak edo izaera sozialekoak.*
>
> *Zehazki, besteak beste, honako hauek lortu nahi dituzten ingurumen arloko gogoetak ezarri ahal izango dira: berotegi efektuko gasen emisioak murriztea, horrela Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduz; kontratua gauzatzeak eragina izan dezake ingurumen balio batzuetan, bada, balio horiek mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktuak birziklatzea eta ontzi berrerabilgarriak erabiltzea sustatzea; edo produktuak soltean entregatzea eta ekoizpen ekologikoa bultzatzea.*

Gogoeta sozialak edo enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauetakoren batekin txertatu ahal izango dira: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitortutako eskubideak gauzatzea; legeria nazionalak eskatzen duena baino desgaitasuna duten pertsonen kopuru handiagoa kontratatzea; lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, bereziki desgaitasuna duten edo bazterketa soziala jasateko egoeran edo arriskuan dauden pertsonena, Gizarteratze Enpresen bidez; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea, lanean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten neurriak aplikatzea erraztuz; emakumeek lan merkatuan parte hartze handiagoa izatea eta lana eta familia bizitza bateragarri egitea erraztea; langabeziari aurre egitea, bereziki gazteen langabeziari, emakumeei eragiten dienari eta iraupen luzekoari; lantokian formazioa bultzatzea; lantokian osasunaren segurtasuna eta babesa bermatzea eta aplikatu beharreko sektoreko eta lurraldeko hitzarmen kolektiboak betetzen direla bermatzea; laneko ezbeharrak prebenitzeko neurriak; enplegurako estrategia koordinatuari dagokionez ezartzen diren beste helburu batzuk (estrategia hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 145. artikuluan dago definituta); edo ekoizpen katean oinarrizko lan eskubideak errespetatzen direla bermatzea, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko Konbentzioak bete daitezen exijituta, tartean, garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitea bilatzen duten gogoetak, haiekiko merkataritza harreman mesedegarriak izanda, hala nola gutxieneko prezio bat eta prima bat ordaintzea ekoizleei, edo merkataritza kate osoaren gardentasun eta trazabilitate handiagoa."

Era berean, 4/2019 Legea aplikatuz, euskal administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharko du bere eraikin guztietan energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazio nahikoak izatea administrazio bakoitzaren kontsumoaren %32 hornitzeko –aprobetxamendu termikoko sistemak eta sorkuntza elektrikokoak barne–.

Arau hau Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuaren bidez garatzen da (2020ko azaroaren 18ko EHAAn, 229. zk.), eta 6. artikuluan, euskal administrazio publikoei eskatzen die aurrezpenaren, energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien erabileraren arloan rol eredugarria betetzea, eraikinetan –edo eraikinen zati

batzuetan–, instalazioetan eta parke mugikorretan, otsailaren 21eko 4/2019 Legean nahiz Dekretuan bertan ezarritako nahitaezko neurriak martxan jarrita, haietan ezarritako helburuak betetzeko asmoz. Ondorio horietarako, euskal administrazio publiko guztiek jarduteko printzipio hauek hartzen dituzte beren gain:

a) Energia aurreztea eta ahalik eta modu eraginkorrenean erabiltzea euren jarduera guztietan.

b) Berotegi efektuko gasen emisioak saihestea edo, hala badagokio, murriztea, energia aurreztuz eta energia eraginkortasuna hobetzea lortzen duten teknikak eta teknologiak ezarriz.

c) Euren eraikin eta instalazioetan energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.

d) Petroliotik eratorritako erregaien ordezkapena bultzatzea.

Sektore pribatuari dagokionez, Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen III. tituluan dago araututa. Printzipioz, nahitaez aplikatu behar zaie industria jarduera jakin batzuei, zerbitzu pribatuei eta merkataritzari, egoitza sektoreari eta garraio pribatuari, eta nabarmentzekoa da egoitza eta industria eremuan energia berriztagarriak erabiltzeko beharra dagoela.

Horri gehitu beharko litzaioke sektore publikoko erakunde orok, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako printzipioak aplikatuz, honako hauekin lotutako betebeharra duela: arrazionalizazioa, kudeaketa publikoarekiko erantzukizuna, finkatutako helburuak betetzeko eraginkortasuna edo baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna. Printzipio horiei gastu publikoan eraginkortasun printzipioa aplikatzea gehitu behar zaie, zeina Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikuluan dagoen, eta hor koka ditzakegu 4/2019 Legean Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen arloko araudian bilatzen diren energia eraginkortasuna eta ingurumen jasangarritasuna.

2.3.2.- Aipamen berezia merezi du berriki aldarrikatutako Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak (2024ko otsailaren 21eko EHAAn, 38. zk.) –aurrerantzean, "ETKAL"–. Europako eta Estatuko legeriak ezarritakoaren esparruan, Euskadin klima neutraltasuna beranduenez 2050. urtean lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzea du xede, eta 2045. urterako neutraltasun hori lortzeko behar diren ahaleginak egiteko konpromisoa hartu da.

Helburu horiek, beraz, jarduera sozioproduktiboaren deskarbonizazioaren, ekonomia zirkularrerako trantsizioaren eta klima aldaketara egokitzearen bidez lortu behar dira, betiere, enplegu duina sortuko duen eta desberdintasunak murriztuko dituen garapen eredu bat ezartzea bilatuta.

Lege horren helburuak honako hauek dira:

a) Berotegi efektuko gasen emisioak murrizteari eta klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko neurriak ezartzeari buruzko nazioarteko konpromisoak betetzen laguntzea.

b) Trantsizio energetikorako prozesua aurrezki eta energia eraginkortasunaren ikuspegitik fokalizatzea, energia berriztagarrien aprobetxamendua eta egungo eredua deskarbonizatzea ahalbidetuko duten energien erabilera, horniduraren segurtasuna eta lehiakortasuna bermatuz.

c) Deskarbonizazio prozesua sustatzea euskal sektore sozioekonomiko guztietan trantsizio energetikoa erabiliz eta garapen ekonomikoa, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea indartuz, garapen jasangarri eta inklusiboko eredu baten esparruan.

d) Lurraldeak egokitzeko duen gaitasuna handitzea, erresilientzia indartzeko eta klima aldaketarekiko zaurgarritasuna murrizteko.

e) Trantsizio energetikorako prozesuaren aukerak aprobetxatzea, garapen teknologiko eta industrialean oinarritutako euskal industriaren lehiakortasuna bultzatzeko.

f) Trantsizio energetikoarekin eta klima aldaketara egokitzearekin eta hura arintzearekin lotutako arloetan, berrikuntza soziala, enpresakoa eta instituzionala sustatzea, ekonomia zirkularragoa lortzeko.

g) Aldaketa sustatzea, digitalizazioa bultzatuz eta irtenbide teknologiko berritzaileak ezarriz, eta beharrezkoa balitz, trantsizio energietara jota eta kontsumitzaileak energia sistemaren barruan aktore nagusi gisa jarrita.

h) Gizartearen prestakuntza eta harmonizazioa bultzatzea finantzaketan, fiskalitatean edo ikerketan, justizia soziala eta bidezko trantsizioa bermatzeko.

i) Energiaren demokratizazioa sustatzea, herritarrek energia eskuratzeko eta informazioa jasotzeko duten eskubidea bultzatuta.

j) Lege honen xedearekin lotutako hezkuntza, ikerketa eta informazioaren hedapena bultzatzea.

ETKALk Energia Komunitateak aipatzen ditu bere hitzaurrean, autokontsumoa lehenesteko politika baten barruan, banatutako energia baliabideen aprobetxamenduan oinarritutako energia sistema baten testuinguruan, non aldizkako energia iturri berriztagarriak energia biltegiratze nahikoarekin osatu beharko diren, energia sare adimendunak garatuta eta eskariaren kudeaketan rol aktiboa izanda. Horretarako, trantsizioan gizarte osoak zeregin aktiboa izan

dezan sustatuko da, bai kontsumoen murrizketaren ikuspegitik, bai sorkuntzaren ikuspegitik, eta hori guztia eragile instituzional, sozial eta ekonomiko guztiei dagokie, klima neutraltasuna lortzeko.

ETKALk toki erakundeentzat zein eskualdeentzat gordetako rola ez da gaiarekin lotutako eskumen espezifikoak esleitzearena; aitzitik, klima aldaketaren inpaktua arintzeko neurrien %70 baino gehiago eta egokitzapen neurrien %90 hartzen dituen eta EBko legedi osoaren %70 aplikatzen duen eragile izatea da dagokion rola, hau da, gastu publikoaren heren bat eta inbertsio publikoaren bi heren. Bestalde, legeak badaki toki erakundeek zeregin bideratzailea dutela, herritarrek eta enpresek, sektore ekonomiko guztiekin batera –lehen sektorea barne–, beren portaerak aldatzeko politiketan laguntza emateko, eta, hala, ezarritako klima neutraltasuneko helburuak ahalik eta azkarren lortu ahal izateko.

Toki erakundeei funtzioak berariaz esleitzeari dagokionez, nabarmentzekoak dira klima eta energia planak, energiarekin eta klima aldaketaren arintzearekin eta egokitzearekin lotutako jarduerak integratu beharko baitituzte beren eskumeneko sektore eta lurralde plangintzan, eta, horretarako, kontuan hartuko dituzte energia kontsumoaren ezaugarritzea, berotegi efektuko gasen emisioak, karbono hustubideak eta, era berean, eragiten dieten klima aldaketaren arriskuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko 5.000 biztanletik gorako udalerriek, beren eskumenen esparruan, 2026ko otsailaren 21a baino lehen onartu beharko dituzte klima eta energia planak, eta horietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoa txertatu beharko dute, bai eta klima aldagaia ere, klima aldaketaren ondorioak arintzearen eta klima aldaketara egokitzearen ikuspegitik. 5.000 biztanletik beherako udalerrientzat, aldiz, aukerakoa da.

Plan horiek gutxieneko eduki hau izango dute:

a) Berotegi efektuko gasen emisioen analisia eta ebaluazioa.

b) Elementu zaurgarriak identifikatzea eta ezaugarritzea.

c) Klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko helburuak eta estrategiak, hirigintza plangintzaren eta udal ordenantzen aldaketa egokiak barne hartuta.

Sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak.

d) Planaren ebaluazio eta jarraipenerako arauak. 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek beren planen betetze mailari buruzko txostena egin eta onartu behar dute, bi urtean behin.

e) Mugikortasun plan bat formulatzea nahitaezkoa denean, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko azaroaren 9ko 11/2023 Legearen arabera, plan hori tokiko planekin koordinatuko da.

Nolanahi ere, ETKALk zeregin bat gordetzen die udalerriei energia berriztagarriak sustatzeko, eta lehentasunezko eta premiazko inbertsioen izaera ematen die, plangintzari, izapidetze administratiboari eta laguntza publikoak esleitzeari dagokienez, besteak beste, jarduera hauek:

a) Sorkuntzazkoak, jabetza publikoan exekutatutakoak, eraginpeko toki erakundeen, irabazi-asmorik gabeko erakundeen edo instalazioa kokatu nahi den udalerrian bizi diren pertsonen edo udalerri mugakideen gutxienez %20ko parte hartze ekonomikoa dutenak.
b) Energia berriztagarrien komunitateenak, herritarren energia komunitateenak, eta tokiko parte hartzea duten sorkuntza berriztagarriko proiektuenak, ETKALko 24.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.
c) Tokiko energia komunitateen eta herritarren energia komunitateen proiektuak. Toki erakundeek Energia Jasangarritasunaren Funtsaren finantzaketa apala lortu ahal izango dute, energia berriztagarrien proiektuetarako.

Bereziki garrantzitsua da ETKALren 26. artikuluak jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak edo azalera eskubideak emateari buruz egiten duen erregulazioa, edo energia berriztagarrien komunitateen eta energia berriztagarriak sortzeko edo energia biltegiratzeko proiektuak garatzeko legez eratutako herritarren energia komunitateen alde edo komunitate horien definizioan deskribatutako helburua bilatzen duten beste ekimen batzuen alde bere titulartasuneko ondare ondasunen gaineko azalera eskubideak eratzeari buruz egiten duena.

Bestalde, ETKALren 27. artikuluak berariaz arautzen du energia berriztagarrien proiektuetan tokiko parte hartzea sustatzea:
"*1.– Euskal administrazio publikoek energia berriztagarrien proiektuen garapena sustatu eta erraztu beharko dute, era horretako jardueretan herritarren parte hartzea bultzatuz.*

Garapen ekonomikoko maila txikiena duten edo biztanleria murriztuta duten gune geografikoei tratamendu berezia emango zaie, lurralde zein gizarte mailan Euskadi kohesionatzeko.

2.– Aurreko atalaren arabera, tokiko herritarren parte hartzea sustatuko da bereziki herritarren energia komunitateetatik, energia berriztagarrien komunitateetatik edo beste eskema parte hartzaile batzuetatik sustatzen diren proiektuetan, ordenamendu juridikoan jasotzen diren bezala.

3.– Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, eta energia berriztagarrien proiektuei dagokienez –betiere, energia komunitateek sustatzen ez badituzte eta garatzeko gaitzen duen baimen administratiboa lortzeko prozedura hasi ez badute–, nork sustatu dituen kontuan izan gabe, gutxienez proiektuaren potentzia osoaren %20 eskaini beharko zaie herritarrei, industriei eta saltokiei, lehentasunez, aprobetxamendu berriztagarriko instalazioa dagoen udalerrian edo haren mugakide diren udalerrietan edo eskualdean bertan.

Aurreko paragrafoan ezarritako erreserba eguzki energia fotovoltaikoko eta energia eolikoko proiektuei bakarrik aplikatuko zaie, banaka edo batera kokapen bakoitzeko 5 MW-etik gorako guztizko potentzia badute.

Eskaintza egiaztatzeko sistema erregelamendu bidez garatuko da lege hau indarrean sartzen denetik gehienez ere urtebeteko epean".

Beraz, euskal administrazio publikoei, oro har, energia berriztagarrien proiektuen garapena sustatzeko eta errazteko betebeharra ematen zaie, horrelako jardueretan herritarren parte hartzea sustatzeko asmoz. Bereziki, herritarren energia komunitateetatik, energia berriztagarrien komunitateetatik edo beste eskema parte hartzaile batzuetatik sustatzen diren proiektuetan tokiko herritarren parte hartzea sustatzea, ordenamendu juridikoan jasota dagoen bezala.

Energia berriztagarriak sortzeko proiektuen izaera parte hartzaileari dagokionez, bereziki garrantzitsua da nabarmentzea ETKAL indarrean sartzen denetik aurrera, eta energia komunitateek sustatutakoak ez diren eta garatzeko gaitzen duen baimen administratiboa lortzeko prozedura hasita ez duten energia berriztagarrietako proiektuetarako –nork sustatu dituen kontuan hartu gabe–, herritarrei, industriei eta saltokiei gutxienez potentzia osoaren %20 eskaintzeko betebeharra ezartzen dela, lehentasunez, aprobetxamendu berriztagarriko

instalazioa dagoen udalerrian edo haren mugakide diren udalerrietan edo eskualdean bertan; betiere, baldin eta eguzki energia fotovoltaikoko eta energia eolikoko proiektuak badira, eta banaka edo batera kokapen bakoitzeko 5 MW-etik gorako guztizko potentzia badute.

2.3.3.- Espainiako Konstituzioak (EK) udalerrien eta probintzien autonomia aldarrikatzen du 137. artikuluan, eta dagozkien interesen kudeaketara mugatzen da.

Toki erakundeei buruzko eskumen zerrenda, lehenik eta behin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean TAOL) 2. artikuluan jasotzen da, eta honako hau xedatzen du: "*Konstituzioak toki erakundeei bermatzen dien autonomiaren eraginkortasunerako, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen legediak, ekintza publikoko sektoreak arautzen dituenak, eskumenen banaketa konstituzionalaren arabera, udalerriei, probintziei eta uharteei beren interesei zuzenean eragiten dieten gaietan esku hartzeko eskubidea bermatu behar die. Horretarako, dagokion jarduera publikoaren ezaugarriak eta toki erakundearen kudeaketa ahalmena direla-eta beharrezkoak dituzten eskumenak emango dizkie, deszentralizazio, hurbiltasun, eraginkortasun eta efizientzia printzipioekin bat etorriz, eta aurrekontu egonkortasunari eta finantza jasangarritasunari buruzko araudia zorrotz betez. Konstituzioan aurreikusitako Estatuaren oinarrizko legeek zehaztu beharko dituzte toki erakundeei esleitzen dizkieten edo, nolanahi ere, egokitu behar zaizkien eskumenak, arautzen dituzten gaietan*".

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eskumen motak eta tokiko eskumeneko gaiak zehazten ditu, baina eskumen espezifikoak zehazteko aukera sektoreko, estatuko edo autonomiako legegileari ematen dio. Energiari dagokionez, TAOLk ez die eskumen juridikorik aitortzen udalerriei, energiaren arloan.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (aurrerantzean, TAAJL) eragindako azken erreformaren ondoren, TAOLk honako hauek aitortzen dizkie udalerriei: eskumen propioak (TAOLren 25. art.), eskumen "ez-propioak" (TAOLren 7.4. art.), eta eskuordetutako eskumenak (TAOLren 27. art.), eta horiei nahitaezko gutxieneko zerbitzuak gehitzen zaizkie (TAOLren 26. art.).

Eskumen esparru hori aztertuta, kategoria horietako bakar batean ere ez dugu energiari edo elektrizitateari buruzko zuzeneko erreferentziarik aurkitzen. Zeharka aitortzen zaizkien eskumen bakarrak argiztapen publikoaren nahitaezko gutxieneko zerbitzua (TAOLren 26.1.a art.) eta eraikuntza birgaitzeko eskumen propioa dira, alderdi estetiko batez gain, energia eraginkortasunarekin eta termikoarekin lotutako alderdi bat ere baduena.

Baina sektoreko oinarrizko legediak (SEL) ere ez du berariaz aurreikusten udalerrientzako eskumenik energiaren arloan. Horri gehitu behar zaio Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea, udalerriei eginkizun garrantzitsua eman ziezaiekeena klima aldaketaren arloko arau esparru orokorrean, onartu egin dela, baina Toki Erakundeen parte hartzea mugikortasun jasangarriaren arloko jarduerak garatzera mugatuta, eta, gainera, azken xedapen bat txertatuta –hamaikagarrena–, non 7/2021 Legea indarrean sartzen denetik 12 hilabeteko epea planteatzen den, honako hauek bultzatuko dituen energiaren arloko arau esparrua erreformatzeko proposamen bat aurkezteko:

a) Kontsumitzaileek energia merkatuetan parte hartzea; tartean, agregazio independentearen bidezko eskaerari erantzutea.

b) Energia berriztagarri aldakor eta malgua sortzeko inbertsioak egitea, bai eta sorkuntza banatua egitea ere.

c) Energia biltegiratzea.

d) Sare elektrikoak aprobetxatzea, horiek kudeatzeko malgutasuna erabiltzea eta energiaren tokiko merkatuak bultzatzea.

e) Energia kontsumitzaileek beren datuak eskuratzea.

f) Energiaren arloko berrikuntza sustatzea.

Oraingoz ez da 7/2021 Legearen aurreikuspen hori bete.

Horren ondorioz, Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeari (EJL) begiratu behar diogu, bertan xedatzen baita aurrezpen eta energia eraginkortasunaren printzipioek eta energia garbien sustapenak botere publiko guztien ekintza gidatu behar dutela, tokikoak barne, Espainiako ekonomiaren jasangarritasuna bultzatzeko dagozkien eskumen esparruetan (EJLko 3. eta 85. art.).

Era berean, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 3.3.i) artikuluan ezartzen du botere publikoek *"energia berriztagarriak lehenetsiko"* dituztela *"energia iturri fosilen erabileraren gainetik, eta pobrezia energetikoari aurre egingo"* diotela, *"energia aurrezpena eta baliabideen eta energiaren erabilera eraginkorra sustatuz, batez ere sorkuntza propiokoak".*

Autokontsumoaren sustapenaren arloan urri samarra den Euskadiko esparru autonomikoan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 44. artikulua aipatu behar dugu. Artikulu horren arabera, udalerri bateko auzotarren betebehar eta erantzukizun gisa, besteak beste, honako hau

ezartzen da: "*Toki erakundeekin lankidetzan aritzea, energia eraginkortasuneko politika publikoen eraginkortasun handiagoa bermatzeko, uraren, hondakin uren arazketaren eta hiri hondakinen kudeaketarako udal zerbitzuak eraginkorragoak izateko jarraibideak betez".*

Arau hau subjektiboki aplikatzen zaien administrazioentzat ez du neurri gehigarririk jasotzen, eta hori gutxienez esanguratsua da.

Bestalde, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoak dagoeneko garatu dituela administrazio publikoen eskumen esparrua eta betebeharrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta hura garatzeko dekretuan –aurretiaz aipatu ditugu bi-biak–, eta udalerriei dagokienez, txosten honen gaiarekin lotura handia duten neurriak inplementatzera behartzen duela.

Kontrapuntu gisa, azpimarragarria da, adibidez, Nafarroako Foru Komunitateak energia komunitateak bultzatzeko duen ekimena, horiei segurtasuna ematen dien esparru juridikoa onartu baitu, eta Nafarroan Energia Komunitateak Sustatzeko Neurriak ezartzen dituen urriaren 21eko 64/2022 Foru Aginduaren bidez egin du (NAO, 226. zk., 2020ko azaroaren 15ekoa), tokiko energia komunitateak, toki erakundeen ondasunak erabiltzeari dagokionez, interes sozialeko instalaziotzat jotzeraino.

2.4.- TOKI ADMINISTRAZIOAK IZAERA JURIDIKO KOOPERATIBOA DUTEN ENERGIA KOMUNITATEETAN PARTE HARTZEA.

2.4.1.- Araudiak ez du forma juridiko zehatzik ezartzen komunitate mota horietarako, eta, beraz, aukera sorta irekita dago, betiere erakunde horiei buruz adierazitako datu definitzaileak errespetatzen baditu; batez ere, horien borondatezko eta irabazi-asmorik gabeko erakunde izaera.

Nolanahi ere, lehenik eta behin, bereziki aipatu behar dugu kooperatibaren formula dela egokiena energia berriztagarriko komunitateak konfiguratzeko, Zuzenbide eta Ingurumeneko Nazioarteko Institutuak 2021eko txostenean eta Herri Arduralaritzaren Euskal Aldizkarian (117. zk., 2020ko maiatza-abuztua) argitaratutako *"«Tokiko energia komunitateak»: toki erakundeentzako erronka berria"* artikuluan –Malagako Unibertsitateko Isabel Gonzalez Rios Administrazio Zuzenbideko katedradunak sinatuta– adierazi duten bezala.

Lehenak ondorioztatzen du gaur egun Espainiako Zuzenbidean dauden irudi juridiko gutxi erabil daitezkeela energia berriztagarrien komunitateak eta herritarren energia komunitateak eratzeko. Elkarteak eta kooperatibak baino ez dira funtsean baliozkoak, eta azken batean, elkarteak ez dira formularik egokiena, jarduera bat gauzatzeari buruz ari garenean.

Horrenbestez, kooperatiba da formularik egokiena.

Bigarren testuak, parte hartze publiko-pribatua konfiguratzeko formula juridiko posible batzuk aztertu ondoren, ondorioztatzen du "Tokiko Energia Komunitate horiek sortzeko orain arte erabili den mekanismo juridikorik egokiena, indarrean dagoen gure arau esparruaren barruan, kooperatiba" izango dela.

Gaineratuko dugu ETKALk, bere 20. artikuluan, formula kooperatiboaren nagusitasuna adierazten duela beste formula asoziatibo batzuen aldean, eta neutraltasun klimatikoa lortzeko trantsizio energetikoaren jarraibideen artean, honako hau ezartzen du: "*Euskal administrazio publikoek arreta berezia eskainiko diete despopulazio arriskua duten eremuei, gizarte eta lurralde kohesioaren printzipioak kontuan hartuta. Horretarako, besteak beste, kontsumo kooperatibak edo taldeak eta hurbileko ekoizleak bultzatuko dituzte, hurbileko kontsumoa duen karbono gutxiko ekonomia sustatzeko".*

2.4.2.- Energia komunitateen bidez energia ekoizteko jarduerak garatzeko Fundaziotik helarazten zaizkigun sozietate formulak bat datoz sozietate kooperatiboekin, eta erantzukizun erregimenari dagokionez juridikoki bazkideei berme gehien ematen dien formula dela uste dugunez geuk ere, esparru horretatik aztertu behar dugu, eta Euskal Autonomia Erkidegoak Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legea (EKL) izan baduela pentsatu behar dugu. Eta garrantzitsuak dira haren 19. artikulua, bazkide izan daitezkeen pertsonei buruzkoa, eta 157. artikulua, kooperatibismoa sustatzeko eta zabaltzeko neurriei buruzkoa.

EKLren 19.1 artikuluak ezartzen duenez, "***lehen mailako kooperatibetako bazkide izan daitezke bai pertsona fisikoak bai juridikoak, publikoak edo pribatuak****, lege honen II. tituluan ezarritako salbuespenekin"*, eta 157. artikuluak, berriz, zeregin oso garrantzitsua ematen die sektore publikoko erakundeei honako hau dioenean:

> "*1.* ***Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek****, bakoitzak bere eskumenen esparruan, kooperatibismoaren printzipio eta balio propioak aztertzea eta zabaltzea sustatuko dute, eta* ***kooperatiben bidez jarduera ekonomikoen garapena sustatuko duten ingurune sozial eta ekonomikoak bultzatuko dituzte, berrikuntza teknologikorako eta antolakuntzarako sarbidea erraztuz eta sozietate kooperatiboetatik sortzen diren ekimenak bultzatuz****.*

Bereziki, sustapen neurri hauek hartuko dira:

(...)

b) Kooperatibak, kalifikazio fiskala edozein dutela ere, handizkari izango dira, eta, beraz, dagozkien prezio edo tarifak aplikatuko zaizkie, eta banaketan edo salmentan, txikizkari gisa zehaztu ahal izango dira.

Ez dira salmentatzat hartuko helburu sozialak betetzeko asmoz kooperatibek bazkideei egiten dizkieten ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak, beraiek ekoitzitakoak edo bazkide ez diren hirugarrenetatik eskuratutakoak izan.

(...)

e) ***Kontsumo kooperatibak ere, artikulu honen 2. paragrafoan aurreikusitako handizkari izaerari kalterik egin gabe, kontsumitzaile zuzenak izango dira ondorio guztietarako, bazkideak ez diren hirugarrenek beren jarduerak garatzeko beharrezkoak diren produktu edo zerbitzuak hornitzeko****.*

(...)

2. Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek, zerbitzu publikoak garatzeko eta hobetzeko, kooperatiben sorreran eta zerbitzu publikoen kudeaketan parte hartzea sustatuko dute.

Ildo horretan, botere horiek aurreikusi ahal izango dute zerbitzuak zerbitzu publikoetako sozietate kooperatiboak eratuz eman ahal izatea, kontratazio publikoaren araubidea arautzen duten lege eta erregelamendu izaerako xedapenekin bat etorriz; nolanahi ere, agintaritza publikoa erabiltzea eskatzen duten zerbitzu publikoak ematea baztertuko da. Sozietate kooperatibo horietan, bazkide sustatzaile gisa, erakunde publiko eskudunak edo eskudunek parte hartuko du(te), eta, hala badagokio, kontratazio publikoaren printzipio orokorrekin bat etorriz, sektorean esperientzia frogatua duten erakunde pribatuek ere parte hartu ahal izango dute. Era berean, sozietate kooperatiboaren xede diren zerbitzuen erabiltzaileek eta bertan lan pertsonala egiten duten bazkide langileek ere parte hartu ahal izango dute. Hala ere, erakunde publiko sustatzaileek kontrola izango dute, zerbitzu publikoak emateko baldintzei dagokienez".

Beraz, agerian geratzen da esparru hirukoitza aurreikusten dela: bat, erakunde publikoei kooperatiben bazkide gisa parte hartzeko aukera ematea; bestea, kooperatibismoaren alde egite hutsa, kooperatiben bidez jarduera ekonomikoak garatuz, berrikuntza teknologikorako eta antolakuntzarako sarbidea erraztuz eta sozietate kooperatiboetatik bertatik sortzen diren ekimenak bultzatuz; eta beste

bat, indar handiagokoa gainera, non aurreikusten den Administrazioak bazkide sustatzaile gisa parte hartzea (aurreragoko paragrafoetan ikusiko dugu bazkide laguntzaile edo bazkide kooperatzaile gisa egiten duten), erabiltzaileekin eta bazkide langileekin batera. Egia da zerbitzu publikoak ematearen testuinguruan sartzen dela, eta energiaren sorkuntza eta hornidura ez dagoela eskumen espektroan sartuta. Baina hala ere, 2009ko arau baten esparruan gaude, gaur egungo testuinguru batean; hortaz, alde batetik, autokontsumoa bultzatzen da, ekimen partekatuen bidez kudea daitekeena, eta, bestetik, Administrazioa bera behartzen duen esparru bat ere badago, baliabide berriztagarrietatik datorren energia pixkanaka kontsumitzea eskatzen duena.

Hala, EKLk, bere artikuluan, lehen mailako kooperatibetako bazkide izatea ahalbidetzen die bai pertsona fisikoei bai juridikoei –publikoak edo pribatuak izan–, eta honako modalitate hauek bereizten ditu:

a) Bazkide kooperatzaileak.

b) Bazkide ez-aktiboak edo ez-erabiltzaileak eta eszedentzian dauden bazkideak.

c) Bazkide laguntzaileak.

d) Kooperatiba mistoetan, botoa duten alderdi sozialen bazkide titularrak.

Txosten honen ondorioetarako, bazkide kooperatzaileentzat eta laguntzaileentzat legez ezarritako baldintzak nabarmentzen ditugu, legeak honela definitzen dituenak:

- Kooperatzaileak: Bazkide kooperatzaileak dira pertsona fisiko edo juridikoak, bazkide izateak lotura zuzena duenean kooperatibaren jardueran benetan parte hartzearekin, langile gisa edo erabiltzaile gisa.

Laguntzaileak: Bazkide laguntzaile izan ahal izango dira, berriz, helburu sozial kooperatiboa erabat gauzatu ezin badute ere, helburu hori lortzen lagun dezaketen pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak. Horien eskubide eta betebeharrak estatutuetan xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta, estatutuetan aurreikusten ez denerako, aldeen artean itundutakoaren arabera. Bazkide horiek guztiak, sozietate kooperatiboak ez badira behintzat, ezin izango dira botoen heren bat baino gehiagoren titular izan, ez Batzar Nagusian, ez Kontseilu Errektorean.

Bazkide laguntzaileek, jarduera kooperatibizatuan duten parte hartzearen arabera, kooperatibaren emaitzetan parte hartzeko eskubidea izango dute, estatutuetan berariaz hala aurreikusten bada edo Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu eta Kontseilu Errektoreak berariaz formalizatzen badu.

Bazkide laguntzaileak bazkide kooperatzaile izango dira, kooperatiba mistoei dagokienez bakarrik.

Debagoieneko ingurunean aldez aurretik aztertutako kooperatiba jakin batzuen kasuan –adibidez, Otxandioko eta Elorrioko kooperatibak, baina edozein kasutara estrapola daitekeena–, Toki Administrazioek bazkide laguntzaile gisa parte hartzen dute, ez baitute helburu sozial kooperatiboa –energiaren kontsumitzaile izatea– erabat gauzatzen, baina helburu hori lortzen laguntzen dute, kapitalarekin eta/edo ondasun higiezinak erabiltzeko utzita. Kontua da toki administrazio horiek –edo, jakina, kontsumitzaile gisa energia komunitateetan parte hartzea planteatzen duten beste administrazio batzuk– bazkide kooperatzailetzat jotzeko aukera ezartzea, jarduera kooperatibizatuan erabiltzaile gisa benetan parte hartzeagatik.

2.4.3.- Argi dago bazkide laguntzaile izateak ekimen kooperatibizatuari dakarkion inplikazio maila txikiagoak eta helburu sozial kooperatiboa erabat ez gauzatzeak urrundu egiten duela eredu hori toki erakundeek energia komunitateak sortutako energiaren bazkide kontsumitzaile izan nahi duten kasuetatik. Are gehiago, parte hartzeko eredu hori gainditua dago, GIZABIDEAk jakinarazi dizkigun ekimenak ikusita.

Kontua da, beraz, ea badagoen Toki Erakundeei energia komunitateetan parte hartzeko aukera ematen dien esparru juridiko bat, ez soilik bazkide laguntzaile gisa, baizik eta baita erabiltzaile-kontsumitzaile gisa ere, hark sortutako energia kontsumituta, eta ea parte hartze hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen berezko mugen menpe dagoen.

Auzi hau zehazteko, hasierako egitatetik abiatu behar dugu, izan ere, bada Toki Erakundeentzako betebehar arauemaile bat dioena kontsumitzen duen energiaren %100 energia berriztagarriko iturrietatik etorri behar duela, eta 2030erako, eraikin guztietan, aipatutako administrazioak duen kontsumoaren %32 hornitzeko adina energia berriztagarri aprobetxatzeko instalazio nahikoak izan behar dituela –aprobetxamendu termikoko sistemak zein elektrizitate sorkuntzakoak barne–.

Betebehar horiek modu autonomoan edo norbaitekin elkartuta bete ahal izango ditu, izan merkatura joz edo izan energia sortzeko jarduera ekonomiko baten bidez. Aukeraketa hori egitean, administrazio bakoitzak aintzat hartu beharko ditu hauek: eraginkortasuna, zerbitzu publikoak, aurrekontu egonkortasuna, etab.

Era berean, energia komunitateen helburua 2018/2001 EB Zuzentarauak xedatutakoaren arabera hartu behar da kontuan. Zuzentarauak, hasiera batean, honela definitzen du "energia berriztagarrien autokontsumitzaile" kontzeptua: *"Espazio mugatu baten barruan bere lokalean edo, estatu kideak ahalbidetzen duenean, beste lokal batzuetan jarduten duen azken kontsumitzailea, bere kontsumorako elektrizitate berriztagarria sortzen duena eta autosortutako elektrizitate berriztagarria biltegiratu edo saldu dezakeena, betiere, etxeak ez diren energia berriztagarrien autokontsumitzaileen kasuan, jarduera horiek ez badira jarduera komertzial edo profesional nagusia*".

21. artikuluak dio kontsumitzaileek eskubidea dutela energia berriztagarrien autokontsumitzaile bihurtzeko, energia berriztagarria sortuz, bai eta elektrizitatea biltegiratzeko sistemak instalatzeko eta erabiltzeko ere, elektrizitate berriztagarria autokontsumorako sortzen duten instalazioekin konbinatuta.

Estatuko ordenamenduan, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak, bere 6.1 artikuluaren j) eta k) ataletan, energia berriztagarrien komunitateak eta herritarren energia komunitateak definitzen dituenean, tokiko agintarien parte hartzea aurreikusten du:

> *"j) Energia berriztagarrien komunitateak dira, hain zuzen, parte hartze ireki eta borondatezkoan oinarritutako erakunde juridikoak, autonomoak eta erakunde juridiko horien jabetzakoak diren eta erakunde horrek garatu dituen energia berriztagarrien proiektuen inguruan dauden bazkideek edo kideek benetan kontrolatutakoak, eta horietako bazkideak edo kideak pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak izaten dira –udalerriak barne– eta haien helburu nagusia bazkideei edo kideei edo jarduten duten tokiko eremuei ingurumen, ekonomia edo gizarte arloko onurak ematea da, finantza irabazien ordez".*

"Herritarren energia komunitateak, berriz, borondatezko parte hartze irekian oinarritutako erakunde juridikoak dira, eta horien benetako kontrola pertsona fisikoak, tokiko agintariak –udalerriak barne– edo enpresa txikiak diren bazkideek edo kideek gauzatzen dute, eta helburu nagusia da bertako kideei, bazkideei edo jarduera garatzen duen herriari ingurumen, ekonomia edo gizarte arloko onurak eskaintzea, errentagarritasun finantzarioa sortzea baino gehiago".

Ondorioz, nagusitu behar den ideia da azken kontsumitzaileen batasun bat egotea, energia berriztagarria sortzeko eta energia hori autokontsumitzeko, alde batera utzita juridikoki energia sortzen duen komunitate eredu bat egon daitekeela, energia hori sarera isuri eta hirugarrenei saltzeko asmoz. Eta hori Tokiko Energia Komunitateei zerbitzuak garatzeko aitortzen zaien gaitasunean kokatuko litzateke; Toki Erakundeek, berriz, jarduera ekonomikoa garatzen duen erakunde bateko partaidetzaren barruan kokatuko lukete, EKren 128. artikuluan eta TAOLren 86. artikuluan oinarrituta.

Argi dago toki erakunde batek energia berriztagarrien kontsumoari eta sorkuntzari dagokionez araudi autonomikoak ezartzen dizkion helburuak lortzeko dituen formulak indibidualak (udalerriko bitarteko propioen bidez bakarrik) edo kolektiboak izan daitezkeela. Kasu honetan, bigarren aukerari erreparatuko diogu, energia komunitateak horretan kokatu behar ditugulako.

2.4.4.- Energia komunitateen helburu hurbilenetako bat autokontsumorako energia sortzea denez, kontua da lizitazio publikoko testuinguru batean kokatu behar dugun edo hirugarren subjektu batek garatutako jarduera ekonomikotzat har dezakegun, pertsona juridikoa izango litzatekeena, non Administrazioak parte hartzen duen.

Aurreko ataletan azaldutakoan oinarrituta, justifikatuta geratu da toki erakundeek ez dutela energiaren arloko eskumenik, eta horrek esan nahi du energia sortzeko jarduera garatzea ez litzatekeela zerbitzuen zuzeneko edo zeharkako kudeaketa kasua izango, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 85. artikuluan aurreikusitako formulekin bat etorriz, zeinak, kasu honetan batez ere, bat etorriko liratekeen Toki Erakundeak berak egindako Kudeaketarekin.

a) Toki erakundearen beraren kudeaketa.

b) Toki erakunde autonomoa.

c) Tokiko enpresa erakunde publikoa.

d) Tokiko merkataritza sozietatea, kapital soziala titulartasun publikokoa duena.

e) Zeharkako kudeaketa, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontraturako aurreikusitako moduen bidez.

Energia komunitateen formularen bidez, interesatuta dauden hirugarrenek batera parte hartuko luketen sorkuntza jarduera bat garatzea, toki erakundeei dagokienez, jarduera ekonomiko bat gauzatzen den kasutzat hartuko litzateke, azken kontsumitzaileentzat energia sortzeko jarduera bat garatzen den unetik bertatik (energia berriztagarrien ekoizpen soberakina biltegiratzeko eta saltzeko aukera ere ematen du), helburu nagusia izanda bertako kideei, bazkideei edo

jarduera garatzen duen eremuari ingurumen, ekonomia edo gizarte arloko onurak eskaintzea, errentagarritasun finantzarioa sortzea baino gehiago. Eta hori guztia errespetatu behar dituzten erakunde juridikoen eredu jakin batzuk erabiliz.

Espainiako Konstituzioaren 128.2 artikuluak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 86. artikuluak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 96. artikuluak aukera ematen diete Toki Erakundeei jarduera ekonomikoak garatzeko ekimen publikoa gauzatzeko. Horri "tokiko ekonomia interbentzionismoa" deitu izan diote hainbat egilek; tartean, Martin Bassols-ek. Ekimen publikoa "onura publikokoa den eta udalerri barruan eta bertako biztanleen onurarako egiten den edozein jarduerarena" izan daiteke (Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 96. artikulua). Batez ere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 86. artikuluak arautzen du, eta honako hau xedatzen du:

> "*Toki erakundeek jarduera ekonomikoak garatzeko ekimen publikoa gauzatu ahal izango dute, betiere beren eskumenak baliatzean aurrekontu egonkortasunaren eta jasangarritasun finantzarioaren helburua betetzen dela bermatuta badago. Neurriaren egokitasuna eta aukera egiaztatzen duen espedientean justifikatu beharko da ekimenak ez duela arriskurik sortzen udalerriko Ogasun osoaren jasangarritasun finantzariorako, eta espedienteak merkatuaren azterketa jaso beharko du, dagoen eskaintzari eta eskaerari, errentagarritasunari eta tokiko jarduerak enpresa lehian izan ditzakeen ondorioei buruzkoa.*
>
> *Toki korporazioko osoko bilkurari dagokio espedientea onartzea, eta horrek zehaztuko du zerbitzua kudeatzeko modu zehatza".*

Nahiz eta egia den tokiko ekimen ekonomikoa aipatzerakoan doktrinak "modulazio" terminoaz hitz egin duela, EKren 128.2 artikuluak ez die lurralde mugarik jartzen hori erabiltzen duten administrazioei, izan Estatua, Autonomia Erkidegoren bat edo Toki Erakunderen bat. Horren adibide ditugu, doktrinaren testuinguruan, Rivero Ysern (2014, 481. or.) eta Gosalbez Pequeño (2012, 345. or.), eta jurisprudentzia testuinguruan, esaterako, Extremadurako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren epaia –1. sekzioa, 2014-03-25, 58/2014 zk., 228/201312 errek.–, zeinaren arabera, Sevillako Udalak aparkalekuak ustiatzeko eratutako ekonomia mistoko sozietate batek -AUSSA- beste udalerri batzuetan, baita Extremaduran ere, horrelako azpiegiturak kudeatzeko lizitazioetan parte hartu zuenean, udalerriaren muga fisikoa gainditu zen.

Horregatik ulertu behar da indargabetuta geratzen dela, egungo erregimen konstituzionalera egokitzen ez delako, 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 46.1 artikulua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena, zerbitzuen udalekotze eta probintziakotze espedienteari dagokionez –tokiko ekimen ekonomikoa ohiz kanpokoa zen testuinguru historiko eta arauemaile bati dagokiona–, hau eskatzen zuelako: "*Zerbitzuak dagokion udalerri edo probintzia*

barruan ematea, zerbitzuko elementu batzuk batetik edo bestetik kanpo egon arren", eta beste horrenbeste gertatzen da Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 96. artikuluarekin ere, zeinak hau dioen: "*Toki Erakundeen jarduera ekonomikoak gauzatzeko ekimena, lehia askeko erregimenean denean, onura publikokoa den eta udalerri barruan eta bertako biztanleen mesedetan ematen den edozein jarduerarena izan daiteke*".

2.4.5.- Energia Komunitateen gaian eta horretarako erabilitako tresnaren nortasun juridikoan zentratuz, batez ere kontuan hartuta Toki Erakundeak ezin duela bere kontrol eraginkorra izan –Europako Zuzentarauek ezartzen dituzten eragozpenengatik–, Toki Erakundeen araudi testuinguruan baliozkoa den formula instituzional bat, aldi berean autokontsumorako ekimenetan parte hartzeko interesa bateratzeko aukera ematen duena, izango da EBren baldintzengatik txikizkako kapital publikoa duten enpresa mistoen aurka jotzea, eta horrekin lotuta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 104. artikuluak xedatzen duenez, Toki Erakundeak "*kapital soziala Erakundearena bakarrik duten merkataritza sozietate edo kooperatiba formak*" erabili ahal izango ditu, eta ekonomia mistoko sozietatea zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa modu gisa desagertu bada ere –eta nabarmendu behar dugu energia ekoizpena ezin dela udalaren eskumeneko zerbitzu publiko gisa hartu–, bai sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian bai 781/1986 Errege Dekretuan bertan, publiko-pribatu lankidetzarako formula indarrean dago.

Lehenik eta behin, Energia Komunitateek ezin dute helburu nagusitzat izan garatzen duten jarduerarekin irabazi finantzarioak sortzea (2018/2001 Zuzentarauaren 2.16.c. art. eta 2019/944 Zuzentarauaren 2.11 art.), baina hori ez da onura ekonomikoa sortzearen aurkakoa, eta ETEen eta herritarren parte hartzea ahalbidetu behar du. Hori guztia tokiko araudiaren baldintzarekin bateratu behar da, eta horrek dio ekimen publikoa jarduera ekonomikoan gauzatu ahal izateko, aldez aurretik errentagarritasun ekonomikoaren azterketa egin behar dela, eta aurrekontu eta finantza egonkortasunaren printzipioari lotu behar zaiola. Gainera, une oro kontuan hartu behar dira EBko Zuzenbidetik datozen betebeharrak, enpresa batzuen parte hartzea mugatzen dutenak. Era berean, kontuan hartu behar da pertsona fisikoek, ETEek edo beste erakunde publiko batzuek akzioetan parte hartzeko aukera izan behar luketela.

Bigarrenik, ekonomia mistoko sozietate bat Energia Komunitate gisa eratzen bada, argi geratu behar da ez dela publiko orokorrari zuzendutako jarduera, baizik eta batez ere kideei edo bazkideei zuzendutakoa, erkidegoko zuzentarauek ezartzen duten bezala, baina egia da eratu den erakunde horrek energia hirugarrenei saldu diezaiekeela.

Hirugarrenik, Energia Komunitate batek egin ditzakeen jarduerak liberalizatuta daude (ekoizpena, elektrizitatearen hornidura, etab.), eta, beraz, prestazioa toki erakunde batek partaidetutako enpresa baten bidez egiten denean, lehia askeko

arauak errespetatu behar dira, Auzitegi Gorenak oro har adierazi duen bezala toki erakunde instrumentalen jarduera ekonomikoan esku hartzeari dagokionez, esate baterako, 2013ko ekainaren 14ko epaian. Honela dio:

> *"…Toki Erakundeek merkatu liberalizatuetan zerbitzu jakin batzuk emateko asmoz mendeko erakunde instrumental bat ezartzen badute, erakunde horrek nortasun juridiko propioa izan arren, korporazio horiek* ***merkatuan gainerakoekin baldintza berberetan lehiatu behar diren*** *operadore ekonomiko bihurtzen dira. Edo, bestela esanda, beren enpresak zuzenbide pribatuko araubidearen pean pertsonifikatu dituzten Toki Erakundeak, beren jarduera eta portaera zehazten jarraitzen dutenak,* ***ezin dira ondoren 'Administrazio Ahalen' tituluan babestu, horien mesedetan esku hartzeko eta gainerako operadoreei merkatu baldintza murriztaileagoak ezartzeko edo jarduera legitimoa mugatzeko****".*

Energia Komunitate batek artatu ditzakeen jardueren espektroa liberalizatuta dago, eta, beraz, lehiari eta ekimen pribatuari irekitzea eskatzen da, baina testuinguru oso zehatz eta mugatu batean, baita fisikoki ere, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretua aplikatuz, 3. artikuluan kontsumokoetatik gertu dagoen eta horiekin lotura duen ekoizpen instalazioa definitzen baitu. Honela:

> *"Energia elektrikoaren ekoizpen edo sorkuntza instalazioa, energia elektrikoa sortu, eta kontsumitzaile bati edo gehiagori autokontsumoko edozein modalitatetan hornidura emateko,* ***baldintza hauetakoren bat betez gero****:*
>
> *i.* ***Kontsumitzaile elkartuen barneko sarera konektatuta egotea edo horiekin zuzeneko lineen bidez lotuta egotea****.*
>
> *ii.* ***Transformazio zentro beretik eratorritako behe tentsioko edozein saretara konektatuta egotea****.*
>
> *iii.* ***Kontsumitzaile elkartuengandik 500 metro baino distantzia txikiagoan konektatuta egotea****. Horretarako, neurketa ekipoen arteko distantzia hartuko da aintzat, plantako proiekzio ortogonalean.*
>
> ***Era berean, kontsumo instalazioetatik gertu eta sarearen bidez elkartuta dagoen ekoizpen instalaziotzat hartuko da, teknologia fotovoltaikoa soilik erabiliz, eraikin baten edo batzuen estalkian, lurzoru industrialean edo lehendik dauden edo etorkizunean egongo diren egitura artifizialetan kokatuta dagoena eta helburu nagusia elektrizitatea sortzea ez duena, kontsumitzaileari edo kontsumitzaileei garraio edo banaketa***

lineen bidez konektatzen zaiona/zaiena, betiere horiek kontsumitzaile elkartuengandik 2.000 metro baino distantzia txikiagoan badaude.
Horretarako, neurketa ekipoen arteko distantzia hartuko da aintzat, plantako proiekzio ortogonalean.

iv. ***Sorkuntza eta kontsumoak katastroko erreferentzia berean kokatuta egotea, lehen 14 digituen arabera edo, hala badagokio, energia berriztagarrietatik, kosorkuntzatik eta hondakinetatik energia elektrikoa ekoizteko jarduera arautzen duen ekainaren 6ko 413/2014 Errege Dekretuaren hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera***.

Definizio honetako i baldintza betetzen duten hurbileko instalazio elkartuei barne sareko instalazio hurbilak deituko zaie. Definizio honen ii., iii. edo iv. baldintzak betetzen dituzten instalazio hurbil eta elkartuei, berriz, sarearen bidezko hurbileko instalazioak deituko zaie".

2.4.6.- Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluak jarduera ekonomikoetan aritzeko eskakizunak ezartzen ditu, eta hauek dira:

a) Korporazioaren hasierako erabakia, bertako kideek eta teknikariek osatutako ikasketa batzorde bat izendatu ondoren.

b) Batzorde horrek jarduera ekonomikoaren alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioei buruzko memoria bat idaztea eta, bertan, kudeaketa modua zehaztu beharko da, Legeak aurreikusitakoen artean, bai eta jarduera egiteari zein kasutan utzi behar zaion ere.

Era berean, zerbitzuaren prezioen proiektu bat ere aurkeztu beharko da, eta, hori finkatzeko, kontuan hartuko da zilegi dela Toki Erakundearen behar orokorrei aplikatu beharreko etekinak lortzea, bere Aurrekontuaren sarrera gisa, erreserba funtsak eta amortizazioak eratzeari kalterik egin gabe.

c) Memoria jendaurrean jartzea, Korporazioak hura kontuan hartu ondoren, gutxienez hogeita hamar egun naturaleko epean, eta epe horretan oharrak egin ahal izango dituzte partikularrek eta Erakundeek, eta, ondoren, Toki Erakundeko osoko bilkurak proiektua onartu beharko du.

d) Toki erakundeko osoko bilkurak proiektua onartzea.

Egia esan, ekimen publiko ekonomikorako ahalmenari dagokionez, hau da, enpresa pribatuarekiko lehia eta berdintasun erregimenean ematen den enpresa jarduerari dagokionez, eta 97.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz espedientea

izapidetzeko betebeharrari dagokionez, doktrinak eta jurisprudentziak mantentzen dituzten jarrerak kontrajarriak dira.

781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluko espedientea izapidetzea eskatzearen aldeko jarrera gisa, bai enpresa jarduera ekonomikoetarako –nahitaez lehia erregimenean–, bai jarduera erreserbatuetarako, nahiz eta merkatu erregimenean eman, eta tokiko enpresa ekimena izan edo zerbitzu publikoak emandakoa izan, Auzitegi Gorenak 2002ko otsailaren 1eko epaian (RAJ 1590) adierazi zuen enpresa munizipalen sorrerak, hala nola Sociedad Municipal Residuos Sólidos Urbanos, SL, funtsezko zerbitzu publikoak lehia bidez kudeatu ahal izateko, beharrezkoa dela, halaber, neurria egokia eta komenigarria dela egiaztatzeko aldez aurreko espediente bat egitea.

Auzitegi Gorenarentzat, jarduera ekonomikoak gauzatzeko ekimen publikoa egikaritzeko neurriaren egokitasuna eta aukera egiaztatzen duen aldez aurreko espedientea edukitzearena, kasu honetan funtsezko zerbitzu publiko bat emateko, ezaugarri komuna da zerbitzu publikoak kudeatzeko merkataritza enpresak sortzen diren kasu guztietan.

Ildo beretik, Justizia Auzitegi Nagusi batzuek ere eman dute euren iritzia, eta adibide gisa, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2012ko abenduaren 28ko epaia dugu (1435/2010 errek.), (Errob.: STSJ CL 6421/2012 – ECLI:ES:TSJCL:2012:6421), zeinean aztertzen baita Leongo Udalak osoko bilkuran hartutako erabakia, ekonomia mistoko sozietate bat sortuz ur hornidurako udal zerbitzuaren kudeaketa modua eta era aldatzeko espedienteari buruzkoa. Edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren apirilaren 26ko 305/2010 epaia (749/08 apelazio errekurtsoa), Donostiako Udalak 2004ko abuztuaren 11n hartutako erabakiaren ondorio dena. Erabaki horren bidez, hileta zerbitzuak kudeatu, garatu eta ustiatzeko udal sozietate publiko bat sortzea ebatzi zen, eta haren estatutuak onartu ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak argudiatu duenez, *"zerbitzu publikoa izateak eta lehia askeko erregimenean aritzeak, 7/85 Legearen 86. artikuluaren arabera, ez du salbuesten Udalbatza –eta hori funtsezkoa da– bere jarduera ekonomikoa, esaterako, merkataritza pertsonifikazio bidez egikaritzeko egokitasuna eta komenigarritasuna espedientean egiaztatzeko betebeharretik. Eta ez du salbuesten, ezta ere, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateginaren –781/86 Errege Lege Dekretua– 97. artikuluan deskribatutako prozedura eta urratsak betetzetik"*.

Toki Araubidearen Testu Bateginaren 97. artikuluko espedientea eskatu behar ez dela uste duten iritziei dagokienez, iritzi hori tokiko zerbitzu publikoak diren kasuetara mugatzen dute, Legeak prestazio jarduera borondatez edo derrigor egiteko eskumena eman diolako, eta hortik ondorioztatzen da ez dela eskatzen TAOLren 26. artikuluko zerbitzu erreserbatu eta derrigorrezkoetarako. Jarrera horren adierazgarri gisa aipatu behar da Valladolideko Justizia Auzitegi Nagusiko 773/2019 epaia, maiatzaren 21ekoa, Aguas de Valladolid SAk jarritako apelazio errekurtsoan emana, Valladolideko Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia inpugnatzen duena, zeinaren bidez, indarrean dagoen emakida kontratua amaitu ondoren, Valladolideko uraren ziklo integralaren kudeaketa zuzena bere gain hartzea erabakitzen baita Enpresa Erakunde Publiko bat sortuz.

Testuinguru hori, enpresa ekimen bidez tokiko zerbitzu publikoak ematera mugatua, ez da aplikagarria kasu honetan, energia elektrikoaren hornidurarena ez baita era horretakoa, lehen adierazi dugun bezala, ez baitago udal eskumenen sortan.

Horregatik da gomendagarria Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluak aurreikusten duen espedientearen izapideak egitea, jarduera ekonomikoetan aritzeko eskakizunak ezartzen baititu.

2.4.7.- Eta hurrengo gaia da energia komunitateen printzipio oinarrizkoenetako bat nola gauzatu behar den: kontsumitzaile interesdunen baterako parte hartzea, Tokiko Sektore Publikoa barne, sortzen den pertsona juridikoa kontrolatu ahal izateko gehiengoen erregimenik gabe, administrazio publiko batek ekimen honetan parte hartzen duela.

Ildo horretan, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuak, oraindik indarrean dagoenak, enpresa mistoetarako erregulazioa jasotzen du, eta 104. artikuluan honako hau xedatzen du:

> "*Enpresa mistoak, udalekotze edo probintziakotze espedientea egin ondoren, prozedura hauen bidez eratu ahal izango dira:*
>
> *1. Korporazio interesdunak eratutako Enpresen partaidetzak edo akzioak erostea, kudeaketa soziala partekatzeko adinako proportzioan.*
>
> *2. Sozietatea sortzea, Korporazioaren esku hartzearekin eta kapital pribatuen ekarpenarekin, prozedura hauetako bat erabiliz:*
>
> *a) akzioen harpidetza publikoa; edo*
>
> *b) ekimenen lehiaketa, Legearen 176. artikuluko 2. paragrafoan*

aurreikusitako iradokizunak onartzen dituena.

3. Lehendik dagoen enpresa bakarrarekin hitzarmena egitea, non aurrerantzean zer estatuturen arabera arautuko den finkatuko den".

Beraz, ekonomia mistoko sozietate kooperatibo bat eratzeko aukerak tokiko ekimenetik bertatik etor daitezke, bazkideak atxikitzeko prozesu bat bultzatuz, Toki Erakundea bera dagoeneko eratuta dagoen sozietate kooperatibo batera atxiki arte.

2.5.- SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO 9/2017 LEGEA AUTOKONTSUMO PARTEKATUAREN ARAUBIDEAN APLIKATZEARI BURUZ. ARAU HORRI LOTUTAKO KASUTZAT EZ HARTZEA.

2.5.1.- Aurreko atalean Toki Administrazioek autokontsumo partekatuko ekimenetan sorkuntza eta parte hartze propioa sustatzeko duten ahalmenari buruzkoak azaldu dira, baina zuzeneko hornidura hautatzeko aukera aztertu behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea aplikatzearen eta, hala badagokio, betetzearen ikuspegitik.

Abiapuntutzat hartu behar da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) 16. artikuluko 3. atalaren arabera, hornidura kontratuak direla, hain zuzen, energia primarioa edo energia eraldatua eskuratzea xede dutenak. Bi kontzeptuak argitzearren, energia primarioak dira bihurtu edo eraldatu aurretik naturan eskuragarri dauden energia mota guztiak, eta azken energia, berriz, erabilera zuzenetara bideratutakoa da, adibidez elektrizitate edo bero forman.

Energia Komunitatearen konfigurazio batean SPKL aplikatzeari dagokionez, garrantzitsua da forma ematen dion erakunde juridikoaren kontrolari muga batzuk ezartzen zaizkiola oinarri hartzea, eta, beraz, bere konfigurazioak berak eragotzi egingo du baliabide propio pertsonifikatuen formuletara edo enpresaburu pribatuen lankidetzara jotzea, SPKLren ondorioetarako kontratu kalifikaziorik izango ez luketenak, formulak kontratazio organoak bitarteko propio pertsonifikatuaren gaineko kontrola izatea eskatzen baitu; izan ere, lehenengo eta behin, beharrezkoa da ente hartzaileari bere zerbitzu edo unitateen gainean izango lukeen multzoaren antzekoa ematea.

Baina kontua da erabakitzea autokontsumo partekatuko formula bat zenbateraino sartu behar den nahitaez SPKLren testuinguruan, hornidura kontratua delako, eta horretarako Toki Erakundeak energia arloko kooperatiba erakundean parte hartzeagatik jasotzen duen energia horniduraren izaerara jo behar da, bertan bazkide kontsumitzaile gisa parte hartuko lukeelako.

2.5.2.- Ildo horretan, energia elektrikoaren autokontsumorako baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuak autokontsumo partekatuaren modalitatea onartzen du kontsumitzaileak hainbat direnean, baldin eta sortze instalazioekin lotuta badaude; eta txosten honen ondorioetarako garrantzia duten bi betebehar ezartzen dira; (i) sorkuntza instalazio berari elkartuta dauden kontsumitzaile parte hartzaile guztiek autokontsumo modalitate berekoak izan behar dute eta (ii) bakoitzak bere aldetik jakinarazi beharko dio enpresa banatzaileari, irakurketaz arduratzen den aldetik, zuzenean edo enpresa merkaturatzailearen bitartez, banaketa irizpideak jasotzen dituen akordio bat dagoela, parte hartzaile guztiek sinatua, 244/2019 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotakoaren arabera.

Oso garrantzitsua da banaketa irizpidearen kontzeptua, koefiziente horrek autokontsumo partekatuan parte hartzen duten kontsumitzaile guztiek sinatutako eta enpresa banatzaileari kontsumoak irakurtzeko arduradun gisa jakinarazitako akordio batean agertzen diren balioak hartuko baititu, eta koefiziente horien balioa kontsumitzaile elkartu parte hartzaile bakoitzak fakturatu beharreko potentziaren, kontsumitzaile bakoitzak sorkuntza instalaziorako egiten duen ekarpen ekonomikoaren edo beste edozein irizpideren arabera zehaztu ahal izango da, baldin eta parte hartzaile guztiek sinatzen badute akordioa eta, betiere, autokontsumo partekatuan parte hartzen duten kontsumitzaile guztien βh,i koefizienteen batura –h orduan sortutako energiaren autokontsumo partekatuan parte hartzen duten kontsumitzaileen artean h orduko ordu banaketaren koefizientea– fakturazio aldiko ordu bakoitzerako unitatea bada.

Komunikazio hori energia eta potentzien kalkulu ereduan oinarrituta egiten da, autokontsumo partekatuaren fakturazio eta likidazio ondorioetarako edo sarearen bidez instalazio batekin lotuta, 244/2019 Errege Dekretuaren I. eranskinean txertatuta.

Energia Komunitate bat honako modalitate hauetakoren batera atxikiko da beti:

i. Soberakinik gabeko autokontsumorako hornidura, isurien aurkako mekanismo bat instalatuta, garraio edo banaketa sareari soberako energia injektatzea eragozten duena. Kasu horretan, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako subjektuen artean mota bakarra egongo da: subjektu kontsumitzailea.

ii. Soberakinak dituen eta konpentsaziora atxikita dagoen autokontsumo modalitatea duten kontsumitzaileak. Kasu horretan, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoetatik bi subjektu mota egongo dira: subjektu kontsumitzailea eta ekoizlea.

ii. Soberakinak dituen eta konpentsaziora atxikita ez dagoen autokontsumo modalitatea duten kontsumitzaileak, 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera hornidura kontratu bakarra dutenak, non

subjektu kontsumitzaileak zein ekoizleak egongo diren.

Eta kontsumitutako eta soberakina den energiaren erregimen ekonomikoa erregelamenduaren 13. artikuluan araututa geratzen da, eta oso garrantzitsua da 4. paragrafoa, honako hau ezartzen duena: *"4. Soberakinak dituen eta konpentsaziora atxikita ez dagoen autokontsumo modalitatea duen ekoizleak isuritako soberako orduko energiagatik dagozkion ordain ekonomikoak jasoko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera"*. 14. eta 15. artikuluak dira autokontsumo modalitatean konpentsazio mekanismo sinplifikatua eta likidazio eta fakturazio mekanismoa garatzen dituztenak:

"***14. artikulua. Konpentsazio mekanismo sinplifikatua***.

1. *Abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 9.5 artikuluan eta 24.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, soberakinak konpentsatzeko kontratua honela definitzen da: soberakinak dituen eta konpentsaziora atxikita dagoen autokontsumo modalitatea duten ekoizlearen eta kontsumitzaile elkartuaren artean sinatutakoa, beren kontsumoen defiziten eta lotutako sorkuntza instalazioetako soberakin guztien arteko konpentsazio mekanismo sinplifikatua ezartzeko. Abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 25.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu modalitate hori eskaintza sistematik kanpo egongo da.*

   Autokontsumo partekatua egiten duten subjektuen soberakinak konpentsatzeko kontratuak banaketa irizpideak erabiliko ditu, hala badagokio enpresa banatzaileari jakinarazitakoekin bat datozenak, 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. *Soberakinik gabe autokontsumo partekatua egiten duten kontsumitzaileek ere konpentsazio mekanismo sinplifikatu bati heldu ahal izango diote, beren borondatez. Kasu horretan ez da beharrezkoa izango soberakinak konpentsatzeko kontraturik egotea, ekoizlerik ez dagoelako, eta nahikoa izango da subjektu kontsumitzaile guztien arteko akordio batekin, banaketa irizpideak erabiliz, hala badagokio enpresa banatzaileari jakinarazitakoekin bat datozenak, 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

3. *Konpentsazio sinplifikatuko mekanismoa, termino ekonomikoetan, fakturazio aldian kontsumitutako energiaren saldo bat izango da, ezaugarri hauekin:*

   i. Merkaturatzaile libre batekin hornidura kontratua izanez gero:

   a. Sarean kontsumitutako orduko energia, hain zuzen, aldeen artean adostutako orduko prezioan baloratuko da.

   b. Soberako orduko energia aldeen artean adostutako orduko

prezioan baloratuko da.

ii. Kontsumitzaile txikiarentzat borondatezko prezioan erreferentziazko merkaturatzaile batekin hornidura kontratua izanez gero:

a. Sarean kontsumitutako orduko energia kontsumitzaile txikiarentzako ordukako borondatezko prezioaren energia kostuaren arabera baloratuko da, TCUh, martxoaren 28ko 216/2014 Errege Dekretuaren 7. artikuluan definituta dagoena.

b. Soberako orduko energia, hain zuzen, orduko batez besteko prezioan baloratuko da: Pmh. Eguneko eta egun barruko merkatuaren h orduko emaitzetatik abiatuta lortuko da, CDSVh desbideratzeen kostua kenduta, martxoaren 28ko 216/2014 Errege Dekretuaren 10. eta 11. artikuluetan definituta dauden bezala, hurrenez hurren.

Soberako orduko energiaren balio ekonomikoa ezin izango da inolaz ere izan fakturazio aldian sarean kontsumitutako orduko energiaren balio ekonomikoa baino handiagoa, eta hori ezin izango da hilabetetik gorakoa izan.

Era berean, kontsumitzaile eta ekoizle elkartuek konpentsazio mekanismo horri heltzea erabakitzen badute, ekoizleak ezin izango du energia saltzeko beste mekanismo batean parte hartu.

4. *Konpentsazio sinplifikatuko mekanismoari atxikitako kontsumitzaileen soberako orduko energia ez da energia elektrikoaren sistema elektrikoan sartutako energiatzat hartuko eta, ondorioz, energia elektrikoaren ekoizleek ase beharreko garraio eta banaketa sareetara sartzeko bidesariak ezartzen dituen urriaren 31ko 1544/2011 Errege Dekretuan ezarritako sarbide bidesariak betetzetik salbuetsita egongo da; merkaturatzailea, aldiz, energia horren balantzearen arduraduna izango da.*

5. *Konpentsazio sinplifikatuko mekanismoa aplikatzeko, mekanismo horri atxikitako kontsumitzaileek zuzenean bidali beharko diote enpresa banatzaileari, edo merkaturatzailearen bidez, subjektu parte hartzaile guztien arteko kontratu bera edo, hala badagokio, soberakinak konpentsatzeko akordioa, eta hura aplikatzea eskatu beharko dute, 1. atalean xedatutakoaren arabera. Soberakinik gabeko autokontsumo partekatuaren kasuan, eraginpeko kontsumitzaile guztien arteko akordio bera bidali beharko da, 2. atalean xedatutakoaren arabera.*

6. *Konpentsazio sinplifikatuko mekanismoari heltzen dioten eta erreferentziazko merkaturatzaile batek hornitzen dituen kontsumitzaileen kasuan, merkaturatzaileak fakturazioa honela egin beharko du:*

iii. *Fakturazioa martxoaren 28ko 216/2014 Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzetan egin beharko du.*

iv. *Zerga aurretik fakturatu beharreko kopuruei dagokienez, soberako orduko energia deskontatu behar da, artikulu honetako 2.ii.b atalean aurreikusitakoaren arabera baloratua.*

Atal horretan aurreikusitakoaren arabera, deskontatu beharreko zenbatekoari dagokionez, soberako orduko energiaren balio ekonomikoa ezin izango da inola ere izan fakturazio aldian sareak kontsumitutako orduko energiaren balio ekonomikoa baino handiagoa.

Gizarte bonua duten kontsumitzaile zaurgarriei, berriz, aurreko bi kopuruen arteko aldeari 897/2017 Errege Dekretuaren 6.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaio (897/2017 Errege Dekretua, urriaren 6koa, kontsumitzaile zaurgarriaren irudia, gizarte bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileentzako beste babes neurri batzuk arautzen dituena).

iv. *Azken zenbatekoa lortu ondoren, dagozkion zergak aplikatuko zaizkio.*

***15. artikulua. Likidazioa eta fakturazioa, autokontsumo modalitatean**.*

1. *Sarean kontsumitutako orduko energia ekoizpen merkatuan zuzenean eskuratzen duen edozein autokontsumo modalitateri atxikitako subjektuek ekoizpen merkatuko likidazioen araudian xedatutakoaren arabera likidatuko dute energia.*

Sarean kontsumitutako orduko energia enpresa merkaturatzaile baten bidez eskuratzen duten subjektuek hilero aldeen artean hitzartutakoaren arabera likidatuko dute, orduko ebazpeneko irakurketa errealetan eta bere aplikazio araudian oinarrituta, 14. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

2. *Enpresa banatzaileari egokituko zaio sareetara sartzeko bidesarien eta sistema elektrikoko dagozkion karguen fakturazioa egitea, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 9.5 artikuluan ezarritakoa aplikatuz.*

Kontsumitzaileak merkaturatzaile baten bidez baldin badu kontratatuta sareetarako sarbidea, enpresa merkaturatzaileak sarerako sarbide bidesariaren eta sistema elektrikoari dagozkion karguen fakturazioa egingo dio kontsumitzaileari, fakturan kontzeptu horiek banakatuta. Enpresa merkaturatzaileak araudian aurreikusitako helbururako erabiliko ditu bildutako zenbatekoak.

Merkatuko kontsumitzaile zuzenen kasuan, kontsumitzaile horiek aplikatu beharreko araudiaren arabera dagozkien karguak hartuko dituzte beren gain.

3. Soberakinak dituen eta konpentsaziora atxikita ez dagoen autokontsumo modalitatea duten ekoizpen instalazioek isuritako soberako orduko energia likidatzeko, ekoizpen jardueraren araudi orokorra aplikatuko da".

Horren ondorioz, aurreikusitako sistemak dakar kontsumitzaile/bazkide bakoitzak kontsumitzen duen energia fakturatzeko mekanismoa inolaz ere ez izatea autokontsumitzaile gisa parte hartzen duen Energia Komunitatearen bidezkoa, horixe izango baita autokontsumo erregimen batean energia ekoizten duen erakundea. Aitzitik, Administrazioak aldez aurretik kontratatuta duen konpainia hornitzaileak egingo du, *"soberako energiagatiko fakturazioa"* kontzeptua aplikatuz; hau da, kontratatutako zerbitzuari dagokion fakturan hornitzailearen deskontua aplikatzen da zuzenean, eta ez da autokontsumitzailearen eta energia komunitatearen artean horniduragatiko fakturaziorik egongo.

SPKLren aplikazioari dagokionez, eta zehazki 16.3 artikuluko d) atalean aurreikusitakoaren arabera, zeinak arauari lotutako hornidura kontratutzat jotzen baititu energia primarioa edo energia eraldatua eskuratzea xede dutenak, kasu honetan Toki Erakunde kontsumitzaileak ez du hirugarren hornitzaile batekin energia eskuratzerik, baizik eta SPKLri lotutako lizitazio prozesuen bidez kontratatu duen energia hornitzailea edukitzen jarraituko du. Baina kide den Toki Erakunde kontsumitzaileak energia komunitate horrekin duen harremanari dagokionez, konpainia hornitzailearen faktura murriztuko zaio, eta, horrenbestez, 9/2017 Legearen 16. artikuluak ez dio eragiten energia horniduragatik Toki Erakundearen eta energia komunitatearen arteko harremanari. Izan ere, Lege horren 2.1. artikuluak, aplikazio eremua arautzen duen aldetik, hau xedatzen du: *"Sektore publikoko kontratuak dira, eta, ondorioz, 3. artikuluan zerrendatutako erakundeek egiten dituzten kostu bidezko kontratuak lege honen mende daude, bertan aurreikusitako moduan eta baldintzetan, horien izaera juridikoa edozein dela ere"*, eta hurrengo paragrafoan hau eransten du: *"Kontratu batek kostu bidezko izaera duela ulertuko da kontratistak onura ekonomikoren bat lortzen duenean, dela zuzenean, dela zeharka".*

Horrek premiazko neurriei buruzko otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretura garamatza. Lege horrek Espainiako ordenamendu juridikoan sartzen ditu Europar Batasuneko hainbat zuzentarau, sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren eremuan: aseguru pribatuena, pentsio plan eta funtsena, eta zerga eta auzi fiskalena. 2. artikuluan, honela definitzen ditu hornidura, obra eta zerbitzu

kontratuak: "*Errege lege dekretu honen aplikazio eremuko entitate kontratatzaile batek edo batzuek eta enpresa batek edo batzuek kostu bidezko kontratuak idatziz jasotzea, obrak egiteko, produktuak hornitzeko edo zerbitzuak emateko*". Eta espezifikoki honela definitzen du hornidura kontratua: "*Produktuak erosteko, epeka erosteko, finantza errentamendua egiteko eta erosteko aukerarekin edo aukerarik gabe errentatzeko xedea duen kontratua.*
Hornidura kontratu batek, modu osagarrian, kolokazio eta instalazio eragiketak barne hartu ahal izango ditu".

Ez dago kosturik Energia Komunitatearen eta Udalaren arteko harremanean, kontratistak (komunitatea dialektika hutsetarako ulertuta) Administraziotik onura ekonomikorik lortzen ez duelako, ez zuzenean ez zeharka; aitzitik, interesdunek beren gain hartu behar dute nortasun juridiko propioa duen tresna hori eratzeko gastua, besterik ez, eta horrek, azpiegituretako eta mantentze lanetako inbertsioak egin ondoren, bazkideen argi fakturak murrizteko bakarrik balioko du, hornitzailearen fakturetan deskontua eginez, inolako ordainik gabe eta zuzeneko energia hornidurarik gabe.

Ondorioz, ez dugu uste SPKLren mendeko harreman juridikoa denik.

2.5.3.- Ez da halako harremana izango, ezta ere, Energia Komunitatea bere bazkideak soberakinik gabe hornitzera mugatzen bada –soberakinik gabeko autokontsumitzaileak–, horietako bat Administrazioa izanik. Hala, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 6. artikuluan aipatzen duen egoeran egongo ginateke, non horrela definitzen duen subjektu merkaturatzailea: *"Garraio edo banaketa sareetara sartzean, kontsumitzaileei edo sistemako beste subjektu batzuei saltzeko edo nazioarteko truke eragiketak egiteko energia eskuratzen duten merkataritza sozietateak edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatiba sozietateak, betiere lege honetan ezarritako baldintzetan*".

Beraz, sozietate kooperatiboak garraio edo banaketa sareetatik erositako energia salduko balio kontsumitzaile elkartuari, bazkideak hornituko lituzkeen enpresa merkaturatzaile gisa eratu beharko litzateke, baina garraio sareetara sartzen ez bada eta bazkideek adostutakoaren arabera autokontsumora mugatzen bada, ez dago kostu bidez energia eskuratzeko eragiketarik.

2.5.4.- Beste kontu bat litzateke, SPKLren 16. artikulua aplikatuta, energia komunitatearen beste eredu batera jotzea, non energia komunitate horrek, OMIEk (izendatutako merkatu elektrikoko operadoreak), merkaturatzaile batekin egindako kontratu baten bidez, erregulatutako *pool*era zuzenean bideratuko litzatekeen energia ekoitziko lukeen, eta horko bazkideek, ondoren, energia hornidura jasoko lukete, ekoitzitako energia eskuratu dien hornitzaile/merkaturatzaile beraren edo beste baten energia berriztagarriko PPA (Power Purchase Agreement) motako kontratuen bidez. Hala, energia iturri berriztagarrietatik sortutako energia aurrez zehaztutako prezioan salerosteko

aldebiko kontratua egongo da, aurrez ezarritako denbora tarte batean –normalean epe luzera ezartzen da–.

Hau da, eredu honetan, Tokiko Energia Komunitateak –erakunde ekoizlea den heinean– energia ekoizten du, eta OMIEk araututako *pool*era isurtzen da, merkaturatzaile baten bidez. Ondoren, merkaturatzaile horrek merkatuan erosiko du energia, Tokiko Energia Komunitateari berari eta/edo bere kideei saltzeko, eta, beraz, zuzenean energia merkaturatzaile batetik eskuratzen da, kontratu puntual/erregularren edo iraupen luzeko kontratuen edo PPAren bidez.

Eredu hori ez dator bat autokontsumo partekatuko instalazio baten potentzian oinarritutako kontsumoen konpentsazioarekin eta horren ondoriozko fakturako deskontuarekin. Aitzitik, Tokiko Energia Komunitatea titularra izango litzatekeen instalazio batean ekoitzitako energia saltzeko eta ondoren bazkideek kontsumituko duten energia erosteko akordio batean oinarrituko da. Eta horrek, administrazio publikoek parte hartuz gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 16. artikuluarekin kolusioan egoteko aukera dakar (eredu zehatzaren arabera), arau horren aplikazio eremu subjektiboan dagoen erakunde bat energiaz hornitzeko kontratu bat dagoelako.

Kasu horietan zalantzarik ez dago Administrazioak bazkide laguntzaile gisa parte hartzeko aukera duela EKLren 19. artikuluaren 5. atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako, baina bazkide kooperatzaile gisa parte hartzeko aukera zalantzan egongo litzateke.

2.6.- UDAL ONDASUNAK ETA HORIEN ERABILERA ERAKUNDE JURIDIKOEI LAGATZEA. ARRETA BEREZIA ENERGIA KOMUNITATEEI DAGOKIENEZ.

2.6.1.- Toki Administrazioek energia komunitateak ezartzen laguntzeko dituzten aukera nagusietako bat da energia berriztagarriko iturrien bidez energia elektrikoa ekoizteko instalazioak ezarri daitezkeen udal titulartasuneko instalazio, eraikin edo orubeen erabilera lagatzea (adibidez, eraikin publikoen estalkiak edo horien titulartasuneko lurretan jarritakoak) eta, hala badagokio, energia berriztagarriko iturrien bidez energia elektrikoa ekoizteko beste jarduera osagarri batzuk egitea, energia komunitateek beren gain har ditzaketen zerbitzuen barruan (adibidez, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak instalatzea).

Horretarako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean aurreikusitakoetara jo behar dugu.

33/2003 Legean eta 1372/1986 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, administrazio publikoen ondasunak bi kategoriatan banatzen dira: jabetza

publikoko ondasunak ('jabari publikoko ondasunak' ere esaten zaie) eta ondare ondasunak. Jabari publikoko ondasunak erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari atxikita daudenak dira (adibidez, eraikin administratiboak, ospitale publikoak, errepideak edo bide publikoak), edo legeren batek halakotzat sailkatzen dituenak (esaterako, araudiak zehaztutako onura publikoko mendiak). Bestalde, 1372/1986 Errege Dekretuaren 6. artikuluan eta 33/2003 Legearen 7. artikuluan honela definitu dituzte ondare ondasunak: "Toki Erakundearen jabetzakoak izanik, erabilera publikora bideratuta ez daudenak", eta, beraz, ia hondarreko kategoria da.

Ondasun horien erabilera erregimenari dagokionez, desberdintasun garrantzitsuak daude kanpoko hirugarrenek ere erabil dezaten baimentzeko prozedurekin alderatuta.

Baina, ondorio horietarako, garrantzitsua da oinarri honetatik abiatzea: zenbait ahotsek uste dute emakidarekin batera *"zerbitzu publikoko funtzio bat edo interes orokorreko helburu bat"* gauzatzen dela, batez ere energia elektrikoaren sorrera eta dagokion hornidura SELek interes ekonomiko orokorreko zerbitzu gisa kalifikatuta dagoelako 2.2 artikuluan, honako hau barne hartzen duenean: "*2. Energia elektrikoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da*".

SELen 1. artikuluak berak, Legearen xedeari buruzkoak, energia elektrikoaren horniduratzat zer jarduera hartzen diren zehazten du, eta horien artean sorkuntzakoak daude:

> "*2. Energia elektrikoa hornitzeko jarduerak dira: sorkuntza, garraioa, banaketa, energia kargatzeko zerbitzuak, merkaturatzea eta komunitate barruko zein nazioarteko trukeak, bai eta sistema elektrikoaren kudeaketa ekonomikoa eta teknikoa ere*".

Horren ondorioz, ondasunen esleipena oinarri oso espezifiko batetik abiatzen da, emakida edo esleipen zuzen eta doakoak izateko aukerari dagokionez.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, nahiko berriki onartu eta aldarrikatu da ETKAL, eta lege horren 26. artikuluan, berariaz arautu da azalerako emakidak edo eskubideak era honetan ematea:

> "*1.– EAEko administrazio publikoek jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak egin ahal izango dituzte edo beren titulartasuneko ondare ondasunen azalera eskubideak eratu, energia berriztagarrien komunitateen eta energia berriztagarriak sortzeko edo energia biltegiratzeko proiektuak garatzeko legez eratutako herritarren energia komunitateen alde, edo komunitate horien definizioan deskribatutako helburua bilatzen duten beste ekimen batzuen alde.*
>
> *2.– Helburu horretarako, jabari publikoko emakidak eta azalera eskubidea mota horretako erakundeentzat gordetako lehiaketa*

publiko bidez edo doako eta zuzeneko lagapen bidez eman ahal izango dira, eta oinarrietan alderdi hauek ezarri beharko dira, nahitaez:

a) Emakida edo azalera eskubidea osatzen duten ondasunen zehaztapen zehatza.

b) Emakidaren edo azalera eskubidearen gehieneko iraupena eta, hala badagokio, dagozkion luzapenak, ondare publikoari buruzko araudi aplikagarrian aurreikusitako gehienekora arte.

c) Urtean ordaindu beharreko kanona edo sortutako energia aprobetxatzeko lankidetza mekanismoa, hala badagokio.

d) Sorkuntza berriztagarriko edo instalatu beharreko biltegiratzeko potentzia minimoa eta bere oinarrizko ezaugarriak.

e) Instalazio horiek martxan jartzeko gehieneko epea.

f) Administrazio publiko emaileak gauzatu beharreko lankidetza eta fiskalizazio mekanismoak.

g) Itzulketa nola gauzatuko den Administrazio publiko emailearen alde, emakida epea agortu edo hori ebatzi ondoren.

h) Emakida deuseztatzeko eta lehengoratzeko eskubidea, bai eta azalera eskubidea suntsiarazteko eskubidea ere, instalazioen mantentze lanen eta segurtasunaren ez-betetze larrietarako edo gutxiegi erabiltzeagatik".

Ondorioz, arau berriak aurreikusten du ondasunen titular diren administrazioek ahalmena dutela jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak egiteko, edo ondare ondasunen gaineko azalera eskubideak eratzeko, energia berriztagarrien komunitateen eta energia berriztagarriak sortzeko edo energia biltegiratzeko proiektuak garatzeko legez eratutako herritarren energia komunitateen alde edo komunitate horien definizioan deskribatutako helburua bilatzen duten beste ekimen batzuk garatzeko, eta esleipen horiek lehiaketa publiko bidez egin daitezke, mota horretako erakundeentzat berariaz erreserbatuta, edo doako eta zuzeneko lagapen bidez.

Logikoa dirudi udalerri batean energia komunitate bat baino gehiago dagoen kasuetan, eta kasuz kasu kontuan hartu beharreko salbuespenezko inguruabarretan izan ezik, erakunde mota horien arteko lehiara jo behar izatea; eta, aldiz, erakunde bat edo bere proiektua besterik ez dagoenean –interes edo berezitasun berezikotzat jotakoa–, zuzeneko eta doako emakidara jotzea, eta aplikagarriak izan daitezkeen berdintasun eta lehia printzipioak babestea.

2.6.2.- Jabetza edo jabari publikoko ondasunei dagokienez, horien gaineko erabilera eskubidea lortzeko, hirugarrenek erabilera pribatiboa eta esklusiboa egitea gaitzen duen titulu juridiko bat lortu behar da, honela baitago definituta Erregelamenduaren 75. artikuluan: *"Jabari publikoaren zati bat okupatzeak eratzen duena, gainerako interesdunek erabiltzea mugatu edo baztertzeko moduan"*. Titulu hori beharrezkoa da, jabari publikoko ondasunak kudeatu eta administratzeko printzipioa baita, hain zuzen, erabilera komunari lehentasuna ematea, eta ez erabilera pribatiboari.

Udalak jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatiboa baimentzeko eman beharko duen titulu juridikoa jabari publikoko emakida administratiboa da, 33/2003 Legearen 93. artikuluan arautzen dena, ezaugarri hauekin:

1. Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehia erregimenean emango dira. Hala ere, Lege bereko 137.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan, zuzenean ematea erabaki ahal izango da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko inguruabarrak gertatzen direnean edo legeetan ezarritako beste kasu batzuetan.

2. Esleipenerako jarraitutako prozedura edozein izan dela ere, emakida eman ondoren administrazio agirian formalizatu beharko da.

3. Emakidak denbora jakin baterako egingo dira. Horien iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da 75 urte baino gehiago izan.

4. Jabari publikoaren erabilera pribatiboko edo aprobetxamendu bereziko emakidak doakoak izan daitezke, ordainpean edo baldintza batzuekin eman daitezke edo jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasari lotuta egon daitezke.

Ez dira tasari lotuta egongo jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak emakidadunarentzat onura ekonomikorik ez dakarrenean, edo, onura hori egon arren, erabilerak edo aprobetxamenduak hura deuseztatzen edo garrantzirik gabe bihurtzen duten baldintzak edo ordainak dakartzanean onuradunarentzat.

5. Emakida egiteko erabakian, 33/2003 Legearen 92. artikuluaren 7. paragrafoan, baimenetarako ezarritako aipamenak jasoko dira gutxienez, kalte ordainerako eskubiderik gabeko alde bakarreko ezeztapenari buruzkoa izan ezik.

Emakidei dagokienez, eta aurreko 2. puntuan adierazten den bezala, lehiaketa deialdiak lehentasuna duenez, zuzenean esleitzea gerta daiteke, honako kasu hauetan:

a) Eskuratzailea beste Administrazio publiko bat denean edo, oro har, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko denean –halakotzat hartuko da bere kapitalean gehiengo partaidetza, zuzenekoa edo

zeharkakoa, Administrazio publiko batek edo batzuek edo Zuzenbide publikoko pertsona juridikoek daukaten merkataritza sozietatea–.

b) Eskuratzailea onura publikokotzat jotako irabazi-asmorik gabeko erakunde bat denean, edo eliza, konfesio edo legez aitortutako erlijio komunitate bat denean.

c) Higiezina zerbitzu publikoko funtzio bat betetzeko edo a) eta b) paragrafoetan aurreikusitakoak ez baizik eta beste pertsona batek interes orokorreko helburu bat gauzatzeko beharrezkoa denean.

d) Besterentzerako sustatutako enkantea edo lehiaketa hutsik deklaratzen denean edo esleipendunak bere betebeharrak ez betetzearen ondorioz enkanteak edo lehiaketak huts egiten dutenean, betiere horiek egin zirenetik urtebete baino gehiago igaro ez bada. Kasu horretan, besterentzearen baldintzak ezin izango dira izan aldez aurretik iragarritakoak edo esleipena gertatu zeneko baldintzak baino txikiagoak.

e) Formagatik edo hedadura txikiagatik eraikiezinak diren orubeak direnean eta jabe mugakide bati saltzen zaizkionean.

f) Ekonomikoki ustiagarria den azalera ez daukaten edo beren izaerarekin bat datorren erabilgarritasuna eman ezin dezaketen landa finkak direnean, eta jabe mugakide bati saltzen zaizkionean.

g) Ondasunaren edo eskubidearen titulartasuna bi jaberi edo gehiagori dagokienean eta jabekide bati edo gehiagori saltzen zaienean.

h) Lege xedapen bidez aitortutako lehentasunezko eskuratze eskubidea duenari saltzen zaionean.

i) Aparteko arrazoiak direla eta, higiezinaren okupatzaileari saltzea komeni denean.

Beraz, kooperatiba formulak gizarte ekimen izaera duen kasuetan, eta onura publikoko deklarazioaren kasuarekin pareka daitekeenean, emakida bat zuzenean emateko aukera oso argia izango litzateke, eta are gehiago Toki Administrazioak berak ekimenean parte hartzeko inguruabarra kontuan hartzen badugu, bere burua hornitzeko helburuarekin (gainerakoak hornitzeaz gain).

Bestela, zuzenean esleitzeko aukera "zerbitzu publikoko funtzio bat edo interes orokorreko helburu bat betetzeko beharrean" oinarritu liteke, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak, bere 2.2 artikuluan, interes ekonomiko orokorreko zerbitzutzat baitauka kalifikatuta hornidura jarduera. Eta hori, energia komunitateen kasuan, sakondu egin liteke, trantsizio energetikoaren, deskarbonizazioaren eta klima aldaketaren aurkako borrokaren eta, aldi berean, pobrezia energetikoaren aurka egiteko elementu nagusia delako; betiere emakidak energia komunitateak bete beharreko baldintzak ezartzen baditu. Trantsizio

Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Lege Organikoaren 20. artikuluan ere jasotzen da hori, trantsizio energetikoaren irizpide orokor gisa, gizarte osoak trantsizio energetikoan zeregin aktiboa izan dezan sustatuz, autokontsumoaren eta energia komunitateen bidez, edo energia berriztagarriko eta/edo biltegiratzeko instalazioetan parte hartuz.

Bestalde, nabarmendu behar da Administrazioak baduela aukera jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako emakidak ezartzearen ondorioz jaso beharreko ordainsariari dagokionez; emakida horiek doakoak izan daitezke, ordain baten truke edo baldintzapean eman daitezke edo jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako tasaren mende egon daitezke. Ildo horretan, Toki Erakundeari dagokio hartzen duen erabakia justifikatzea, emakidadunak emakidatik lor lezakeen irabazia bezalako alderdietan oinarrituta, 33/2003 Legeak jada jasotzen baitu jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak emakidadunarentzako onura ekonomikorik ez dakarrenean edo, onura hori egon arren, erabilerak edo aprobetxamenduak hura deuseztatu edo hutsal bihurtzen duten baldintzak edo ordainak dakartzanean, ez direla tasari lotuta egongo. ETKALk 26. artikuluan emakidak doakoak izateko aurreikuspena jasotzen du –aukerakoa–.

2.6.3.- Ondare ondasunei dagokienez, ustiapenaren araubidea horien erabilera energia komunitateari lagatzea da, eta arau orokor gisa ezartzen da lehia prozedura bat izapidetu ondoren ematen direla, sektore publikoko kontratuak arautzen dituen araudian aurreikusitakoaren arabera, baina kasu honetan, honako hauek ere sartzen dira: ondasunaren berezitasunengatik zuzeneko esleipenaren salbuespena, eskaera mugatzea, aurreikusi ezin diren gertaerek eragindako presa edo eragiketaren berezitasuna, zuzeneko esleipena bidezkoa denean (33/2002 Legearen 107. art.).

Prozesu mota horien ezaugarri gehigarri hauek ditugu:

1. Ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubide errealak doan laga daitezke lagapen hartzailea beste Administrazio publiko edo lotutako edo mendeko erakunde edo organismo publiko bat denean. Era berean, 150.000 euro baino gutxiagoko salmenta prezioa duten landa higiezinen besterentzeak dokumentu administratiboan formalizatu ahal izango dira, eta hori nahikoa titulu izango da Jabetza Erregistroan inskribatzeko.

Toki Erakunde bat partaide duen sozietate kooperatibo bat horri lotuta dagoela uler daiteke –nahiz eta ez menpeko–, baina horri dagokionez ere aplikagarriak dira emakida administratiboa jabari publikoko ondasunetan oinarritzeko erabilitako eta 2.6.2 atalean azaldutako argudioak.

2. Ondare ondasunak ustiatzeko kontratuak eta gainerako negozio juridikoak kontratu dokumentu edo hitzarmen bidez formalizatuko dira, eta beren izaerari dagozkion Zuzenbide pribatuko arauen arabera arautuko dira, lege honetan aurreikusitako berezitasunekin.

3. Ondare ondasun eta eskubideei buruzko kontratuak, hitzarmenak eta gainerako negozio juridikoak itunen askatasunaren printzipioari lotuta daude. Administrazio publikoak, interes publikoa lortzeko, egokitzat dituen klausulak eta baldintzak hitzartu ahal izango ditu, betiere ordenamendu juridikoaren edo administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez badira.

4. Ondare ondasunak edo eskubideak eskuratu, ustiatu, besterendu, laga edo trukatzera zuzendutako negozio juridikoek barne hartu ahal izango dute aldeek horien xede diren ondasun edo eskubideei edo Administrazio kontratatzailearen ondarean integratutako beste batzuei buruzko prestazio osagarriak egitea, betiere betebehar horiek betetzea behar bezala bermatuta badago.

5. Ondare ondasunak edo eskubideak ustiatzeko kontratuek ezin izango dute 20 urtetik gorako iraupena izan, luzapenak barne, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

   Esleipendunak eskatuta, ondare ondasunak ustiatzeko kontratua luzatu ahal izango da, hasierako epearen erdia gainditu ezingo duen epe baterako, baldin eta ustiapenaren emaitzak neurri hori gomendagarri egiten badu.

Jabari publikoko ondasunen gaineko emakiden edo ondare ondasunen ustiapenaren kasuan, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60. artikuluak ezartzen du kapital sozialerako ekarpenak ondasun edo eskubideetan egin daitezkeela, estatutu sozialek baimentzen badute edo Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu. Horrek eragin positiboa du Toki Erakunde bakoitzak jarduera garatzeko izapidetu beharko lukeen espedientean, aurrekontu egonkortasunaren arloan duen eragina mugatzen baitu, eskudirutan ordaintzea mugatu dezakeelako.

3. ONDORIOAK.

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako ondorio hauek atera dira:

Lehena.- Espainiako Estatuko ordenamenduak ez ditu osorik lekualdatu energia komunitateen gaia arautzen duten Europako Zuzentarauak.

Gaur egun, Energia Berriztagarrien Komunitateen eta Herritarren Energia Komunitateen irudiak garatzen dituen 2023ko apirileko Errege Dekretuaren Proiektua dago martxan, Energia Komunitate horien printzipio arautzaileak ere barne ordenamendu juridikoan sartu nahi dituena, era horretan, Erkidegoko xedapenetan ezarritako lekualdatze agindua partzialki betez –2018/2001 (EB) Zuzentaraua eta 2019/944 (EB) Zuzentaraua–. Izapidetze fasean dago, eta ez dago data zehatzik prozesua amaitzeko.

Bigarrena.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauak (EB), iturri berriztagarrietatik ateratako energia erabiltzea sustatzeari buruzkoak, herritarrek eta tokiko agintariek energia berriztagarrien proiektuetan parte hartzea du helburu, eta, horri esker, energia horiek onarpen handiagoa izango dute tokian bertan, eta herritarrek trantsizio energetikoan parte hartze handiagoa izango dute.

23/2020 Errege Lege Dekretuak, ekainaren 23koak, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste esparru batzuetako neurriak onartzen diren, Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen zenbait artikulu aldatuta, honela definitzen ditu Energia Berriztagarrien Komunitateak: *"Parte hartze ireki eta borondatezkoan oinarritutako erakunde juridikoak, autonomoak eta erakunde juridiko horien jabetzakoak diren eta erakunde horrek garatu dituen energia berriztagarrien proiektuen inguruan dauden bazkideek edo kideek benetan kontrolatutakoak dira, eta horietako bazkideak edo kideak pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak izaten dira –udalerriak barne– eta haien helburu nagusia bazkideei edo kideei edo jarduten duten tokiko eremuei ingurumen, ekonomia edo gizarte arloko onurak ematea da, finantza irabazien ordez"*.

Formula hori bera jasotzen da Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 3. artikuluko definizioen artean.

Hirugarrena.- Ez Euskal Autonomia Erkidegoko esparru juridikoan, ez eta Toki Erakundeetako esparru juridikoan ere, ez da energia arloko eskumenik gordetzen Toki Administrazioetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat helburu betetzeko arauak eman ditu, hala nola: energiaren erabileran eraginkortasuna bultzatzea eta aurrezteko joera sustatzea; energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna murrizteko edo euskal administrazio publikoen energia faktura murrizteko; energiaren kudeaketa tokikoago eta komunitarioago bat bultzatzea, besteak beste, Toki Erakundeei eragiten dietenak.

Araudi horrek Administrazio Publikoak behartzen ditu sustapen neurriak inplementatzera, hala nola euskal administrazio publikoen energia elektrikoa erosteko lizitazioetan erositako energiaren %100 jatorri berriztagarrikoa izatea exijituko da, bai eta 2030erako eraikin publiko guztietan Administrazio bakoitzaren kontsumoaren %32 hornitzeko energia berriztagarriak aprobetxatzeko behar adina instalazio izatea ere, aprobetxamendu termikoko sistemak eta energia elektrikoa sortzeko sistemak barne.

Laugarrena.- Autokontsumorako energia elektrikoaren ekoizpena ezin da Toki Administrazioen eskumen sortaren barruko jardueratzat hartu, eta, beraz, erakunde horiek mota horretako ekimenetan duten parte hartzea, ekoizpen eta autokontsumo kasu erabat propioa ez denean eta Energia Komunitateak eratuz hirugarrenekin lankidetzan aritzen direnean, Konstituzioaren 128. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 86. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 96. artikuluan aurreikusitako jarduera ekonomikoen garapenaren testuinguruan koka liteke, eta bazkide laguntzaile gisa parte hartu ahal izango dute, baina baita bazkide kooperatzaile gisa ere, erabiltzaileak diren heinean, energia komunitatearen eredua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 16. artikuluarekin kolusioan ez dagoenean.

Enpresa mistoak eratzeko, jarduera horietan aritzeko espedientea ireki ondoren, honako prozedura hauek erabil daitezke:

1. Korporazio interesdunak eratutako Enpresen partaidetzak edo akzioak erostea, kudeaketa soziala partekatzeko adinako proportzioan.

2. Sozietatea sortzea, Korporazioaren esku hartzearekin eta kapital pribatuen ekarpenarekin, prozedura hauetako bat erabiliz:

a) akzioen harpidetza publikoa; edo

b) ekimenen lehiaketa.

3. Lehendik dagoen enpresa bakarrarekin hitzarmena egitea, non aurrerantzean zer estatuturen arabera arautuko den finkatuko den.

Bosgarrena.- Sozietate kooperatiboaren formula 2018/2001 Zuzentarauak eta 2019/944 Zuzentarauak energia komunitateentzat ezartzen dituzten eskakizunetara hobekien egokitzen dena da, partaidetza irekia eta borondatezkoa errespetatzen duten erakunde juridikoei dagokienez, izan autonomoa edo izan erakunde juridiko horren jabetza diren eta erakunde juridiko horrek garatu dituen energia berriztagarrien proiektuen inguruan dauden bazkideek edo kideek kontrolatuta.

Seigarrena.- Toki Erakunde batek parte hartzen duen sozietate kooperatibo baten bidez autokontsumo partekaturako energia ekoiztearena, soberakinik gabe edo soberakinekin, ez dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio esparruari lotuta, baldin eta erabilitako formulak kosturik ez badu eta hirugarren batek egindako energia hornidura ez bada.

Energia komunitate batek bere bazkideen energia hornidurarako PPA kontratu bat izenpetzen den eredura jotzen badu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin talka egin lezake.

Zazpigarrena.- Toki Erakundeek ondasun higiezinen gainean izan ohi duten jabetza dela tarteko, jabari publikokoak edo ondarekoak izan (atxikita dauden erabileraren arabera) eta instalazioak egokiak direnez gero azpiegitura fotovoltaikoak hartzeko, Administrazio horiek bazkide egoki bihurtzen dira ekimenerako, eta gainera, ustiapen horiek zuzenean edo lehiaketa bidez emateko lege marjina dute, baita doan edo kostu bidez ere.

Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Lege berriak sakondu egiten du energia komunitateei egindako lagapenen jatorrian, bai jabari publikoko ondasunak badira, bai ondarekoak badira, eta higiezinaren titularra den Administrazioari lehiaketa publiko murriztuaren bidez egiteko aukera ematen dio, hau da, legez eratutako edo zuzenean eta doan eratutako energia berriztagarrien komunitateei eta herritarren energia komunitateei lehiaketa hori egiteko aukera emanez.

Aldi berean, izan jabari publikoko ondasunen gaineko emakiden kasuan edo izan ondare ondasunen ustiapenaren kasuan, kooperatiben kapital sozialerako ekarpenak ondasunetan edo eskubideetan egin ahal izateko aukera dago, estatutu sozialek baimentzen badute edo Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu. Eta horrek onura dakar Administrazioarentzat, aurrekontuaren egonkortasun eta diruzaintza gaietan.

Eta hauxe da informatzeko dudan guztia, egoki deritzodanez, irizpide hoberik edo Zuzenbidean hobeto oinarrituriko beste irizpiderik ezean.

Arrasaten, 2024ko martxoaren 26an.

MARTINEZ DE

IZENA: ANZUOLA ANTOÑANA ENEKO - IFZ 44679248T

Digitalki sinatua IZENAREN arabera ANZUOLA MARTINEZ DE ANTOÑANA ENEKO - IFZ 44679248T
Data: 2024-11-19 17:15:47 +01'00'

Eneko ANZUOLA MARTINEZ DE ANTOÑANA

Abokatua

LKS Next

TECNOLOGÍA
CONSULTORÍA
LEGAL

© LKS Next, 2021

Eskubide guztiak erreserbatuta geratzen dira.
Debekatuta dago, titularraren baimen espresu eta idatzirik gabe, dokumentu hau osorik edo partzialki erreproduzitzea, banatzea, publikoki komunikatzea, eraldatzea, alokatzea edo mailegatzea, edozein modutara edo edozein euskarritan –ukigarria edo ukiezina, gaur egun ezaguna edo etorkizunean asmatzen dena–.

EGOITZA SOZIALA
GOIRU, 7

20500 ARRASATE
Tel.: +34 902 540 990

DONOSTIA
ZUATZU ENPRESA PARKEA

URUMEA eraikina - 1. solairua - 1. lokala
Zubiberri Bidea, 31
20018 DONOSTIA
Tel.: +34 902 540 990

BILBO
ZAMUDIOKO PARKE TEKNOLOGIKOA
207-A eraikina, behea
48170 ZAMUDIO
Tel.: +34 902 540 990

KANTABRIA
PARQUE EMPR. TIRSO GONZÁLEZ - F2
Portal 22 - 1ª Planta -OF. 1-2
39610 EL ASTILLERO
TEL. +34 942 544 938

GASTEIZ
PEDRO ASUA, 75-77
01008 GASTEIZ
Tel.: +34 945 287 800


BILBO
KALE NAGUSIA, 33 – 3. solairua
48009 BILBO
Tel.: +34 5 94 439 96 50

AKITANIA – FRANTZIA
TECHNOPOLE IZARBEL IMMEUBLE
CRE@TICITE. BATIMENT A
64210 BIDART
Tel.: +33 5 59 58 00 00

MADRIL
PERU, 6
Edificio A Bajo 3º
28290 LAS ROZAS
+34 900 970 038

GETXO
ZUGAZARTE ETORB., 32
48930 GETXO
Tel.: +34 944 04 39 00

INFO@LKSNEXT.COM
WWW.LKSNEXT.COM





Dokumentu hau LKS NEXTek egin du, Gizabidea Fundazioak eskatuta, ENERGIAREN PUNTUA - ERALDAKETA KOMUNITARIOKO BULEGOAREN (EKB) esparruan egindako lanei erantzunez.

EKB hau eraldaketa komunitarioko bulegoetarako laguntza programari atxikita dago (IDAEko Bulegoetako EE Programa), Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (NextGenerationEU), eta haren oinarri arautzaileak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren urriaren 25eko TED/1021/2022 Aginduaren bidez ezarri ziren.